

June Crespo.
Baskularra

GUGGENHEIM BILBAO

HITZAURREA	3
EGUNKARI BASKULARRA.....	6
JUNE CRESPO, HEDAPEN BASKULARRA	35
3D, 2D, 1D: GERTATU BEHAR IZANGO ZATEKEENA.....	45

HITZAURREA

MANUEL CIRAUQUI

June Crespo (Iruñea, 1982) artistaren obra, egileak hala erabakita, hainbat ikerketa-ildo eta bide garaikideren bidegurutzean kokatzen da. Alde batetik, elkarrizketa eraldatzailea sortzen du azken hamarkadetako euskal artea markatu duten kontzeptuekin, “pare mugikorrekina”, hala nola abstrakzioa eta keinua, tragikotasuna eta opakutasuna, arintasuna eta bitxikeria. Era berean, duela gutxi arte eztabaida handietan premiazko zat jotzen ez ziren zenbait gai hartzen ditu bere gain, bereziki sentsibiltate feminista eta bizimodu modernoak naturari eragindako suntsiketaren kontzientzia —produktio- eta erreproduktio-ziklo industrial eta post-industrialek eta Antropozenoaren higadurak natura dagoeneko erabat menderatuta daukaten honetan—.

June Cresporen obran, lehenengo lanetatik hasita, ensanblajeetan elkarreraginean dabilzan eragile gisa ageri dira materialak, marruskaduraz eta erakarpenez betetako eragiketen eragile gisa, hain zuzen ere. Horrek esan nahi du sarritan agertzen direla, ia ezagutzeko moduan agertu ere, funtzionaltasun industrialak gogorarazten duten ontzien edo egituren zatiak, esaterako, bidoienak, zementuzko kofratuenak edo zingilaz eutsitako burdin zatienak; baina horien kokapenak, sarritan, giza gorputzen proportzioei jarraitzen die altuerari, hedapenari eta lurrarekiko harremanari dagokienez. Hala, irudikapen antropomorfitikoz, mundu naturalaren emulazioz zein arkitekturarekiko mendekotasun bikarioz osatutako eskulturaren nolabaiteko historian parte hartzen dute, eta berekin dramate historia hori. June Cresporen obran, harreman mekanikoak —zehazki, eskultura baten atal edo organoen artekoak— intentsitate afektiboekin nahasten dira. Erretxinazko masa zati bat eta igeltsuzko mugari bat metalezko egitura batekin kontaktuan jartzean —*Titulurik gabea (Eta zure urratsak entzuten ditut honantz etortzen)* [*Sin título (Y escucho tus pasos venir)*, 2018] lanean, adibidez— material horren guztiaren emozio eta potentzialtasunak jartzen dira abian. Materialeak subjektu politikoen jarrera konplexuak erakusten dituzte; ezinezkoa da haien artean besarkadarik, musurik, tentsiorik eta urraturik ez ikustea, are etsaitasun eta tolerantziarik ere; keinuen eta praktiken erreferentziak, jatorriaren aztarnak —norbaitenak izandako arropak, laneko eskaileak edo zelak, inguruko mundua eraikitzeke balio duten aldamiok— kontraesanean daude obraren itxura abstraktuarekin, eta ezusteko enpatia-moduetara bultzatzen gaituzte. Cresporen lanetan behin eta berriz gertatzen da objektu jakin baten eraldaketek alienazioak eta elkarguneak eragiten dituztela aldi berean, eta horiek, halaber, eraldaketa—, zatiketa— eta konbinazio-eragiketak sorrarazten dituztela.

Gaurdaino, materialtasunaren izaera bizi eta aktiboa beti egon da Cresporen jardunaren baitan, eta Guggenheim Bilbao Museoan ikusgai dagoen *Baskularra* erakusketaren proiektuaren oinarri-oinarrian ere badago. Erakusketa horren xedea Cresporen obrari buruzko ikuspegia eskaintzea da, eta, era berean, baita artista orain arte bere lanean aztertu gabeko eskala eta hedapena esploratzera bultzatzea ere. June Cresporen eskulturek askotariko elementuak biltzen eta nahasten dituzte —landareetatik ateratako moldeak, aurkitutako arropa edo oihalak, eraikuntzarako piezak (adreiluak, totxoak...), hagatxoak, egunkariak— eta, hala, azpimarratu egiten dute zer-nolako kontraste bortitza dagoen bizitako materialaren eta gure bizitza hesitzen eta bideratzen duten elementu estrukturalen artean, izan hodiak, txapak, moldeak nahiz kofratuak. Horiei zurtoinak atxikitzen zaizkie, edo haien arteko loturetan

harrapatuta geratzen dira oihalezko piezak zein paperak. Tenkatzaileen bidez lotuta edo besterik gabe bata bestearen kontra jarrita, elementu horiek galdekatu egiten dute elkar. Azken zazpi urteetako hogeita hamar pieza ingururekin batera, *Baskularra* erakusketa ekoizpen berri eta bikain baten inguruan artikulatzen da, non Cresporen sail askotan errepikatutako formak, keinuak eta galderak elkartzen baitira. Horren adibide dira argazkien erabilera eskultoriko edo are arkitektonikoa, lurreko inprimatze handi bilakatuta; edo ekoizpen industrialeko zein eraikuntzako euskarriak (hala nola lan-mahaiak edo plataforma jasotzaileak) aurkeztea, ez rol autonomoan, baizik eta eskultura-multzo baten rol funtzionalari lotuta; eta biak ala biak euskarri bilakatzen dira, forma begetal, tubular eta zilindrikoak espazioan zehar ugaritu daitezzen. Halako keinu eta galderen talkak aukera ematen du ikerketa material eta formal berriak garatzeko, eta horiek tamaina erraldoiko espazioa hartzeko, bertan harreman-ildo ugari marraztuta. *Baskularra* erakusketan, June Cresporen pieza bakoitzaren barne-komunikazioa adierazi nahi da, bukatutako eskulturek nahasteen, edontzien, substantzia urtuen, garbiketen mundu likido eta jariakorrarekin duten zorra. Baina ez hori bakarrik. Erakusketak proiektuan dauden obra guztien arteko transmisioak ere iradokitzen ditu, ontzi komunikatu eta kapilar-sare gisa jokatzeko baitute, bai kontakizun materialari dagokionez, bai Crespok eskarifikazio gisa eskulturan azalerarazten dituen potentzial semantikoei dagokienez. Horrelaxe sortu da proiektu hau, non espazioarekin duen harremana birplanteatu baitu artistak, eta non bira harrigarri bat egin baitu, bere lana ezohiko hedapen batera birkalibratuta. Instalazio berri hau izen bereko erakusketarako pentsatua eta egina izan da, eta artistaren ibilbidea ezagutzeko bide posible bat marrazten duten zenbait eskultura-sail jasotzen ditu.

June Cresporen obran oso erraza da indibidualtasunaren haria galtzea: homonimiak, errepikapenak eta sail irekiak nagusitzen dira (adibidez, *Dividual*, 2002). Horrenbestez, erakusketa barnean piezak multzokatzeko irizpideak *assemblage* eskultoriko baten barne-eraketan dagoen irizpideari jarraitu dio; irizpide horrek ez du zerikusirik kronologiarekin, izenekin edo zenbakiekin, baizik eta espazioan duten afinitatearekin, intentsitate komunarekin eta ahaidetasunarekin. Hala, antzemangarri suertatzen dira *Baskularra* (*Vascular*, 2024) sail berriak honako obra hauekin dituen triangulazioak: *VSCHC* (2023); *Beloak* (*Veils*, 2022); *Acts of Pulse* (2022); aipatutako *Dividual* (2022); *No osso* (2021); eta *Banoa, bai* (*Voy, sí*, 2020). Eta hori hain da horrela, non esan baitezakegu Cresporen banakako piezak ez direla benetan indibidualak, sail bateko iterazioak baizik, eta haietan osagai bat bakarra ezagutzen dugun arren gehiago ere egon litezkeela. Piezak leku jakin batean elkarrekin egoteak berekin ekar ditzake gogoeta-eta berrantolaketa-prozesuak. Artista ohituta dago horiek onartzen, eta itxura batean amaitutzat emanda zeuden obrak edo pieza-sekuentziak berregin edo editatzen ditu modu harrigarrian. Hor, bada baskularitate boteretsu bat, lanaren alde morfologikoa gainditu eta egiturari eragiten diona. Baskular izatea metodologia bat da, baina *pathos* bat ere bada, eta proiektu honek hor hartzen du zentzua, obra berri baten genesi gisa, eta, orobat, egindako bidearen berrirakurketa gisa.

Argitalpen honek —erakusketaren bidelagun izateaz gain haren eraginpean ere badagoenak eta harekiko lotura baskular askoak dituenak— bere material-sorta propioa planteatzen du. Horien artean, artistaren ekoizpen-egunkariko oharra nabarmentzen dira, proiektu honetarako sorkuntza-lan berrien garapen-fase nagusietan jasoak. Ohar horien eta *Baskularra* izenburupean biltzen diren obraren arteko korrespondentzia hain da intimoa eta indartsua, ezen elkarri belarrira xuxurlaka ari direla baitirudi. Cresporen ekoizpen-egunkariak gainera, Miren Agur Meabek idatzitako poema-ziklo bat ere badago, hura ere ezin intimoagoa, bi-bien unibertsoek bat egiten duten eremu komunaren adierazgarri: erresonantzia-ekintza. Liburuak biltzen dituen bi saiakera kritikoek, berriz, June Cresporen lanaren eragin sakona dute, eta modu diskurtsiboan erantzuten diote lan horri, ez hainbeste azalpen artikulatu gisa, baizik

eta obrak aurkezten dizkigun problematiken lanketa sendo gisa. Bai Jara Rocharen testuak, bai nireak, esploratzea dute xede, Cresporen jardunak horretarako gonbita egiten baitigu bere ez-osotasun sendotik; prozesuaren eta fintasunaren arteko, filosofikoa denaren eta erraietakoa denaren arteko gainezarpen etengabetik.

[Itzulpena: Bakun;
Egokitzapena: Guggenheim Bilbao Museoa]

EGUNKARI BASKULARRA

JUNE CRESPO

03 / 21

Txertaketa.

M.-ri esaten diot elkarri korapilatutako loreen orgia txiki bat iruditzen zaidala.

M.: "Udaberrian gaude. Zurtoinak haizearekin nahasten dira".

Zinta itsasgarria ebakiak estaltzeko edo adierazteko. Brontzearen gainean esparatrapua erabiltzea pentsatu dut.

03 / 23

Berrantolatzen ari naiz. Atal-modulu bat lekuz aldatu dut. Gorputz bat mugitu.

Alboetarantz hedatzen da. Sorta izatetik zubi izatera pasa da.

Erdigunea erditik mugitu. Ez dauka oinarri bakar bat.

Irudi hauek bildu ditut Manuel Cirauquirekin izandako elkarrizketa baten ostean.

03 / 28

Argizarizko eranskinak egin ditut atalak luzatu edo elkartzeko. Ez dut inoiz lehendik galdatutako pieza batean argizariarekin lan egin; denborarik ezagatik, agian. Argizariak brontzearekiko duen materialtasun-eta kolore-kontrastea gustatzen zait. Horrela gera liteke.

Gaur goizean Alondegitik pasa naiz eta Elena Aitzkoaren azken eskultura ikusi dut *hallean*. Egunaren amaieran zatika egin ditudan argazkiak begiratzen ari naizela, nire piezaren zati batzuekiko antzekotasunak antzeman ditut, tolesdura eta pilaketa guneetan. Eskalan ere bai.

03/29

Duela bizpahiru aste K.-rekin lo egin nuen, eta amets erotikoa izan nuen strelizia batekin. Lorea hankartean egokitzen zitzaidan, xurgatu eta guztiz betetzen ninduen.

03 / 30

K.-ri argizarizko eranskinak dituen eskulturaren zati baten argazkia erakutsi diot. Miazkatzeko gogoa ematen duela esan dit.

Zurtoina osatzen duten atalak ordenatu ditut. Erretzea erabaki dugu.

Galdatzea, molderik gabe.

03 / 31

Monumentu lesbiano baten ideia buruan daukat duela egun batzuk.

Pieza txikiago bat lantzen hasi naiz. Hormigoizko lehen saiakera bat.

Zati zorrotz batzuk kentzea eskatzen du. Forma kamutsagoa. Bolumen kontzentratua. Gorputzenborrak. Gorputzen fusioa. Gorputz imanduak.

Molde galdu bat egitea pentsatu dugu.

Hainbat isurketa eta egunetan betetzea. Denbora-tartea, geruzak, zimurtasun desberdinak. Bete ezean, forma editatzea.

04 / 12

Hirugarren gorputz bat gehitzea erabaki dut, alderantzizko posizioan.

Haien artean egokitzeko, zati bat berotu eta beste zatiaren kontra sakatu dugu.

Gorputz guztiei altzairuzko barrak sartu behar zaizkie eusteko, eta pasta jarri behar zaie pisuagatik ez zarrastatzeko.

04 / 24-25

Igeltuzko molde (galduaren) lehen fasea. Harrigarria iruditzen zait haren testura ikustea, igeltsuarekin eskala honetan lan egiteak eskatzen duen ahalegin fisikoa. Eskuaren aztarna literala da. Inguruan hagaxka uzurtuak jarrita sendotzen dute.

Barbara Hepworthen pieza batzuk etorri zaizkit gogora.

Hiru gorputzeko modulua argizaritan errepikatu dut. Metalez galdatzen badut xehetasun gehiago onartzen ditu, adibidez, lorearen orratzak, zorrotz eta ziztatzaile.

05 / 15

Oilategi-sarea jarri dute dagoeneko argizaririk ez duen moldeak sendotzeko.

Eskailera batera igota, moldearen irekidurei erreparatu diet, burdina nola sartzen den. Ahal dudan sakonen begiratzen dut. Beheko alde batean argi pixka bat sartzen da.

Igeltuzko pareta finenek aurretik gorputzen artean zegoen espazio negatiboa erakusten dute. Ertz organikoak dituzte.

Duela hainbat urte egin nuen molde baten barruko ikuspegi bat dakarkit gogora. Orduko hartan, maniki baten hanken eta aldaken arteko espazio hutsak espazio arkitektonikoa zirudien.

05 / 16 (Altkirch, CRAC Alsace)

Bart gauean Elfi Turpinek Mathilde Rosierrez hitz egin digu; Frantziako herri batera erretiratu omen da. Oso kontzentratuta eta inguruko paisaia kontuan hartuta lan egiten du.

Distantzia hartu.

Urratsak poliki ematen ari naizela konturatu naiz. Eskala eta aurrekontu kontuak direla medio, ezin diot guztiari aldi berean ekin. Proba batzuk baztertu ditut eta bidaiaren aurretik landu genituen argizari batzuk itxaroten utzi ditut. Nahiago dut proposamena birbideratu. Antzera funtzionatzen duten piezak proposatu. Bariazioak.

ATZERA EGINEZ AURRERA EGITEA

Bizpahiru gorputzeko moduluak elkartuta egin nituen maketa txikiak interesatzen zaizkit. Artikulazioak dirudite. Zangoak. Belaunak.

Baina tamaina errealeran eramaten ditudanean munstro tankera hartzen diet.

Posizio horizontala duen hiru gorputzeko moduluak abiadura iradokitzen du, aerodinamikoa.

Ez ahaztu: prozesua erakusten duten piezak. Egikera. Joan-etorriak. Ebakiak eta birmihiztadurak. Eskala handiagora aldatzean ezaugarri hori mantentzea da erronka.

Prozesu nahia. Mugimenduarena. Berehalako emaitzen bila joatearen inertzia gainditzea.
Erabakirik ez hartzea. Erabakia atzeratzea.
Erakusketa oratzearen sentsazioa. Ni neu positiboki korapilatzea ere beharrezkoa da.
Barruan/nahastuta egotea. Kanpoko ikuspegiak ematen duen kontrol sentsazioa galtzea.
Aurrekontua ondo ez kudeatzeko beldurra.

Epeek gaina hartuko ote duten beldurra.

Azken asteetan etenaldi asko eta beste lan batzuekiko gainjartzeak izan ditut (gorabehera emozionalak eta maitasun eraldiak ere bai).
Han urrunean, galdategian, nire gauzak aurrera doazela jakiteak lasaitu egiten nau.

Hustu. Ezetz esaten ikasi.

05 / 17

Hangarreko egonaldian egin nahi ditudan asfaltozko eta hormigoizko piezetan pentsatzean, tentsioaren eta grabitatearen bidez paretarekin artikulatzen diren gorputzen ideia bueltatu naiz.

Paretan jarritako soka sistema.

Listoiak

Tirafondoak

Buztina

Igeltsua eta espartzua

6 mm-ko hagaxka uzurtua

Silikona

Erretxina akrilikoa eta zuntz kuadriaxiala

Baselina

Azetato lodiak

Ekaina hasierarako plana:

bigarren lore bat modelatu eta bilatu.

05 / 18 (Zürich)

Eliza baten ondoan nago, zoruan galtzada-harriz marraztutako labirinto batean barrena ibiltzen.

Labirintoak nire kezken inguruan emateko dituen aholkuak entzuteko prest nago. Egoera nahasi samar batean sartu naiz, baina isiltasuna badator pixkanaka.

Zera dio:

-Irten ahal izateko, sartu egin behar da.

-Ez dago lasterbiderik.

-Ez dago presarik.

-Berriro leku beretik pasatzen zarela dirudi, baina ez.

05 / 22 (Paris)

Claire Le Restiffekin hitz egin ondoren, argi ikusten dut izenburu bat aurkitu behar dudala 3Dak lantzen ari ginela Miquel Cardielek *Aracne* deitu zuen piezarentzat (horrela esaten diot lan egiten dudan jendearekin elkar ulertzeko). “Armiarma”-tik urrunduko duen izenburu bat.

Guggenheim Bilbao Museoko 105 aretora joan naizen azken aldietan oso gogoan izan dut nire lanak Louise Bourgeoisen *Ama* obra izango duela bizikide Museoaren kanpoaldean. 2020 ezker tarteka bisitatu dut areto hori espazioaren sentsazio fisiko bat izateko, gorputz osoa aintzat hartuko zuen sentsazio bat. Espazioan barrena ikusten nuen. Edo, hobe esanda, proiektatu egiten nuen. Ondo ondo ikusi nituen erakusketetako obrei jaramonik egin ezinik. Xabier Salaberria, Doris Salcedo, Cristina Iglesias, Richard Artschwager eta beste hainbesteren obrak tresnatzat erabili ditut altuerak neurtzeko, eta masen eta aretoko espazio hutsaren arteko erlazioak ikertzeko.

Louise Bourgeois, zuri so nago. Zurea den zerbait nahi dut niretzat.

Benetakoa.

Gorputz-enborrak eta bustoak etxeko ehun, eskuzapi, tapizekin jantziak. Pisua eta dentsitatea duten gorputz-fardelak, altxatzen dituen barne tentsioa ere badutenak. Ehuna: azal adabakitua, orbainez betea. *Amaren* hanketako giharrak hodi-zati konkabo eta konbexuak lotzen dituzten soldaduraz beteta dauden bezalaxe.

Joan den udan *The Woven Child* (Gropius Bau, Berlin) erakusketa ikusi ondoren, ehunekin lan egiteko nolakotasun eta modu ez hain zaindua, ez hain sofistikatu berreskuratu nahi izan nuen.

Drapeatuak eta oihal gardenak alde batera utzi eta nire arropa zikin eta erabilietara bueltatzea, objektuen artean sartuak. Nire galtzarik kuttunenak, nire izterren igurtziak gastatuak.

Soinean neraman arropak ere, premia hutsagatik, barruan bukatu dezake keinu azkar batean. Garbitu ere egin gabe.

Arropak interesatzen zaizkit, badituztelako gorputzaren araberako egitura, jostura eta irekidurak. Daukaten koloreagatik edo ehunduragatik aukeratzen ditut. Elastikoak edo barrubigunak diren, beroak edo distiratsuak, gardenak edo estanpatu psikodelikodunak. Tapakiak, alfonbrak eta oheko arropa ere sartzen dira hor.

Ehunak sartzeari kolorea jartzeko eta afektu jakin batzuk adierazteko dudana modua da. Keinuaren nolakotasunari ehunaren nolakotasuna gehitzen zaio.

Zerbait objektuen neurrira josi izan dudanean inoiz ez du lehenengoan funtzionatu. Egin egin behar dut eta gero desegin. Lotailuak jartzen ditut beste modu batera muntatu ahal izateko. Kasu horietan distentsioa eta nolabaiteko erortze gozagarria interesatzen zaizkit. Masen eta hutsuneen joko ere bai.

Hautzaroa josten gogoratzen dut, eta etxean zeuden nire amaren parpaila, txatal edo adabakiekiko peluxeentzako jantziak asmatzen. Lehenago ere, muntaia txikiak egiten nituen gerezi hezur, zotz, artile eta abarrez.

Batek inor begira ez dagoenean egiten duena.

Orainaldian bi ezaugarri jokatu nahi nituzke, biak bizitzarako ezinbestekoak: intimitatea eta potentzia: askotariko tenperaturak, eskalak eta inplikazioak.

06 / 3-4

ADARRA LEHORTZEN UTZI LORATU AHAL IZATEKO

06 / 5

Eibarrera iritsi naiz, galdategira, egun batzuk kanpoan izan ondoren. Unai igeltsuzko moldea puskatzen bukatzen ari da. Hormigoizko modulua mahaiaren gainean altxatuta dagoen brontzezko pieza konplexuenaren alboan dago.

Hormigoizko pieza uste baino latzagoa da.

Forma desitxuratuta ageri da, harriek higatua.

Haren testurak dar-dar egiten du, egin/desejin egiten da gainazal eta inguru zehaztuagoa duten guneekin kontrastea.

LEPOAK

Zati tente bat.

Haren bertikaltasuna, haren zutik/tente egotea, haren itxura arina.

Piezak elkarrengandik hurbil ikusteak, gainjarrita, nondik jarraitu erakusten dit.

Sintonia bi-bien itxura gordinean.

Laokoon eta bere semeak

Bi altuera

Mahaiaren gainean / lurra ukitzen ia

06 / 6

Fase lauago batera igarotzen ari naizela sentitzen dut.

Lasaitzen nau gauzak nola gertatzen diren baieztatzeak. Prozesuan ematen diren topaketak.

EGITEARI UTZI / EGITEN UTZI

Aldendu. Bidaiek haizea ematen didate.

Modulu trinko bat egitearen ideia baztertu eta hasieratik nahi nuenera itzuli naiz: zubi eta lorategi moduko piezak.

Carlos Copertonerekin izandako elkarrizketa bat dut gogoan: erakusketa lorategi gisa.

NAHASTEAREN GOZAMENA

AMALGAMA

Nahaste konplexua

Gauza bat, bi gauzaz osatua, dela geruzaka, dela atal bereizezin gisa.

-Hormigoia-argizaria-altzairuzko hagaxka-oihala (2020).

-Erretxina-zementua-ehuna-silikona (2016).

-Erretxinatan blaitutako orratzekin egindako tolesdun ehuna (2022).

ARTIKULAZIOA

Lotura eta ebakia bat bera dira.

Lotura argia/etendura.

Gauza bat bestearen alboan "bere espazioarekin".

-Brontzea eta ehuna, solidoa eta azala (2022).

06 / 7

Miren Agur Meaberekin gosaldut plaza Barrian, argazkiak eta xehetasunak erakutsi dizkiot, eta egiten ari naizen piezen eta aurreko batzuen prozesua azaldu diot modu desordenatuan. Nire lan egiteko moduari eta nire jardunbideari buruzko aztarnak.

Interesgarria iruditu zait azaltzen ari naizen prozesu zehatzaren urratsak deskribatzen ari nintzela neure burua kanpotik entzun dudanean: "Elementu baten zatiak batzen ditugu; entitate berri bat osatzen dugu; zatiekin osotasun bat berrantolatzen dugu berriro [...]".

Tarteko urrats bakoitzean piezek materiaren eta beharrezko ekintza teknikoaren arrastoak arrastatzen dituzte.

Itxuragabetzeko prozesua (bir)gorpuztekoa

Lanaren haragitzea

Miren Agurrek nire gorputzarekin lotutako indarkeria edo gertaera traumatikorik bizi izan dudana galdetu dit. Erantzun diot, izatekotan, jaiotzea bera. Askotan aurkitzen dut gertaera horrekiko erlazioa nire lanean.

JAIOTZEA – erditze-kanala

Igarobideak/hodiak

Zulaketak

(Museoan maketarekin lan egin dut).

*Hodi gurutzatuen piezaren bolumentria gehiegizkoa iruditzen zait *Aracneren* aldean, baina 150 cm-ko diametroa mantentzea erabaki dut.

Piezak nire garaieraren antzekoak izatea nahi dudalako dute neurri hori.

Begiradaren mugan eta oinez ezin korrituzkoak.

(2021eko abendua)

Maketan, horizontalean jarritako pare bat lore elkarri akoplatuta.

Amaryllis bat eta strelitzia bat. Eskala errealean 8 metro inguru neurtuko lituzkete. Neurri horri esker pertsona bat baino gehiago objektu beraren inguruan elkartuta ibili daitezke. Kolektibotasuna dakarren eskala. Haren ondoan aireztatzeko plastikozko hodi batzuk eta diámetro txikiagoko kartoizko beste batzuk, espazioaren zati handi bat hartzen duen T bat eratuz¹.

Erakusketa aretoarekiko lehen erabakietako bat pareta banatzailerik ez eraikitzea izan zen. Hala ere, funtzio hori izan zezaketen elementuak behar zirela ikusi nuen. Bereiztea, etetea, gainjartzea edo beste lan batzuk ezkutatzea. Halaber, espazioaren barruan espazioak sortzea.

Itxura industrialeko eskultura tubularren eta jatorri organikoko formen arteko interdependentzia eta oihartzuna lehen intuizioetan ageri ziren jada.

HODIAK/ZURTOINAK GORPUTZA KANAL GISA

Andonik argazki bat bidali dit: strelitzia lanaren zurtoina (5 m) euskarri edo bastidore batera soldatuta (punteatuta). Altuera 2,10 m (1,90 m beheko aldean).

06 / 8

Zurtoina + euskarria.

Hainbat posizio probatzen ditut:

1. Zurtoina *Aracneren* ondoan edo hari itsatsita
2. Zurtoina + lorea: strelitzia osoa
3. Zurtoin exentua –*Kanala*– zurtoinaren forma bigun samarra bastidorearen egituraren gainean.

Zurtoina jarrita piezak hartzen duen neurrian bada ilusioa egiten didan zerbait. Dibertigarria iruditzen zait nola hazten den.

Atzean dagoen zerbait hartzeko luzatzen den beso baten irudia.

Lorearen irudia nabariagoa egiten da. Trinkotasuna galdu du, irudia irabazi.

Zerk irauten du gehiago, formak ala irudiak?

Erakarpeneren eta erretina-gozamenaren esparrurantz joateko arriskua ikusten dut.

Espektakulutik urrundu nahi dut eta elementuak bereiz joatea erabaki dut beren indarra eta irekitasuna mantentzeko.

(Irailak 2) Zati hau transkribatzean, nola erreprimitzen naizen hauteman dut. Nire testuingurua hauteman dut. Aitzitik, baina, Isa Genzkenen arrosa ere badut gogoan. Irudi horren indarra eta nik ez dudana lotsagabekeria.

Hormigoi eta brontzearen alboan hainbat kolore eta dentsitateko goma-apar zatiak jarri ditut,

eta kontrastea gustatu egiten zait.

Goma-aparrezko piezak negatiboan mekanizatzeo aukera aztertu dut, forma gogorretara egokitu ahal izateko.

Julia Spínolaren *Persona, foto, kopia* erakusketa ikusi dut Artium Museoan (Vitoria-Gasteiz).

Bakarrik, museoa eguerdian ixten dutenean.

Argi naturalarekiko bizipena — begiak alde ilunetara ohitzeko denbora.

Begi niniak zabaldu eta uzurtu egiten dira oinez ibili ahala. Nire gorputzean aldibereko mugimenduak hautematea.

Erlazioa: argia–espazioa–presentziak.

Espazioaren bizipen haptikoa gorputz-mugimenduen emaitza diren pertzepzioz osatzen da.

Espazioan barrena, gorputz mugimendu horiek ikusmena eta ukimena lotzen dituzte aldi berean.

Umorea / maitagarria dena / biguna dena / “amaitu gabea” dena /
gardena dena / zaurgarria dena / irekia dena / iragazkorra dena

*Zalantzan jartzen dut materialak nola erabiltzen ditudan. Brontzea gehiegizkoa egiten zait. Material prekario, galkor eta bigunagoen gogoia dut, eskuz egitekoak diren prozesu intimoagoena, nire denbora eta ni behar gaituztenena. Juliak JAIn² gidatutako tailerra praktikan jartzen has ninteke. Lehen egunean aretoko leku fisiko bat aukeratzeko proposatu eta material bakarra eskaini zien partaideei: poltsa bat. Egunero material berri bat gehitzen zitzaion aurrekoari (inork ez zekien, aldez aurretik, zein izango zen): metalezko sarea, satinezko xingola eta plastikozko loreak. “Material horietako bakoitzak egoera bat eragiten du, soinu bat sortzen du...”.

Material horiek soilik erabiliz eta toki finko batean lan egitea. Toki horrekiko konpromisoa hartzea eta piezarekin tokia “egitea”. Aretosan espazio/denbora bat sortzea. Barrurantzko denbora. Prozesua luzatzea. Ahalik eta gehien zabaltzea.

06 / 9

Basileara etorri naiz goizean goiz. Eguna logelan pasa dut, atsedean hartzen.

Inguruan jatetxe dominikar bat aurkitu dut eta gustura sentitu naiz nire hizkuntza hitz eginda, patakonak eta bachata. Claudia nirekin hemen egotea nahi nuke.

Lo egin.

Esnatu. BCNko egonaldian, laburra izan arren, zerbait ateratzeko edo saltsaren batean sartzeko gogoarekin konektatu dut³.

Presioa – produkzioa. “Orain edo inoiz ez” dela sentitzearen presak energia ematen dit.

Artiumeko piezetarako porxa mekanizatu dion pertsonaren kontaktua eskatu diot Juliari.

M.-rekin hitz egiten dudana bitartean ilundu egin du.

Goiz oheratu naiz.

06 / 10

Egunkari hau transkribatzen hasi naiz. Goiz osoa kontzentratuta pasa dut. Javi dator Bregenzetik. P. Staffen erakusketa ikusi dugu Kunsthalle Baselen. Dominikarrera joan gara berriro eta gomendatu diguten taberna latinoamerikar batean dantzatu dugu.

Una espina saca otra (Álex Bueno & Frank Reyes)
Esa mujer (Luis Vargas)
Socorro (Jey One)

06 / 11

Duela hilabete batzuk Guggenheim Bilbao Museoko 105 aretoan ikusgai egon zen Doris Salcedoren pieza, oraingoan Fondation Beyelerren.

Hemen lortu dut ikustea.

Neurri batean zementuz kofratutako altzarien mihizatzeetan oinarritutako eskulturen artetik, espazioan autonomia handien duten elementuak interesatzen zaizkit. Egitura argia eta presentzia propioa ageri dutenak. Piezak “gelak” edo ibilbideak eratuz kokatuta daudenean interesa galtzen dut.

Azokaren muntaketan Gordon Hall ikusi dut bere piezekin interakzioan dauden bi performerrekin entseatzen. Hitz egiteko gogoz geratu naiz.

Ibaian bainatu gara motxila flotagarri horietako banarekin. Korronteak eraman zaitzan utzi. Izoakia jan. Irteteak on egiten didala sentitu dut berriro.

Bartzelonarako hegaldia bertan behera utzi didate.

06 / 12

Bruce Naumanen bideoa, *Practice*, 2022.
Art Basel Unlimited.

... hands slowly moving across on an old wooden table. The camera alternates between the left and right hand, each of which draws one and the same mark on the tabletop. The apparently endlessly repeating gesture remains the same, forming an X over and over again.

06 / 13 (Bartzelona)

Pieza bat poliestirenotan mekanizatzeko aurrekontua eskatu dut eta baiezkoa eman diot.

PREMIA/BULKADA dut lanerako eragile.

Arriskatu egin naiz logikoa ez dirudien arren. Presioari eta denbora mugatuari erantzuteak errepikapenak egitera bultzatzen ote nauen galdetzen diot neure buruari. Beste nonbaitera eramango nauen konfiantza daukat.

Daukadanarekin lan egin. Azken bi urteetan 3Dn eskaneatzen joan naizen loreetako batzuekin forma berriak sortzen saiatu naiz. Programak guztien arteko bateratze aleatorioa egin du: amaryllis, fresia, hiazinto, iris, kala, anthurium...

zeharkatuak.

06 / 14

Loreak yogako jarreratan ipini nahi ditugu paretan. Tortsioak, okertzeak, etab. eginarazteko. Nukleodun eskeleto moduko batzuk egin behar zaizkie atalen mugimendua artikulatu ahal izateko.

Lore-gorputzak.

Ateliarsen (2016) hodi eta erradiadoreetan txertatutako loreekin lan egiten nueneko irudiak datozkit.

Muntaia digitala vs. eskuz egindako muntaia *Ple de forats*⁴.

06 / 15 (Lleida)

Sorigué etxearen material-laboregira joan naiz. Materialaren harikortasunak eta trinkotzeko beharrak eraginda, asfaltoarekin lan egitea zaila dela berretsi dut.

Berotan lantzea bururatu zait: erretxina zeharrargiz egindako azal moduko batera isurtzea eta bertan eustea.

Errekarridun hormigoi ereduak ikusi ditut. Alearen konposizioa eta morfologia agerian uzten dituzten ebakiak.

06 / 16 (Zaragoza)

Goma-apar birziklatuzko konglomeratua.

06 / 17–18 (Madril)

Susana Solano. Con la mano 1970–80.

CA2M, Madril. Oihalean bolumena espontaneoki eragiten duten izurrak eta tolesdurak. Paretatik agertzea.

Forma – gainazala.

Begiek ukitu egiten dute.

06 / 20 (Eibar)

Zubia, argizarizko bi piezaren arteko mihizadura, behin muntatuta hormigoizko piezaren aurrez aurre jarri duguna. Forma osoa da, baina irekia.

Ez dute elkar ukitzen. Oihartzuna dago.

06 / 21 (Bartzelona)

Ez dut asmatu porex mekanizatuaren eskalarekin. Handiegia da. Oraindik ez dakit kalkulu-akats hori larria den ala ez, baina dagoeneko ez dago atzera bueltarik.

Jende berria dago etxetxoan. Intimitaterik ezak eta presentziek hauskortasuna eta ezinegona eragiten dizkirate.

Banoa/dagokidan espazioa betetzeari utzi diot.

Manuel Cirauquirekin izan dudana bilerako ohar solteak.

Braktea. Zurtoinaren, hostoaren eta lorearen arteko erdibidea.

Infloreszentzia (fenomenoa). Zurtoinak berak sortzen ditu loreak.

Animalia-magnetismoa

Hibridazioa

Txertatzea

Aldaxka

Animalia bidezko polinizazioa

ARDATZA (landarearena)

garapen horizontala

garapen bertikala

BASKULARRA

Botanikako hiztegitik ateratako zenbait hitzen artetik, izenburua *Baskular* izan daitekeela iruditzen zaigu.

Erakusketarako maileguen zerrenda ixten saiatu gara. Muntaketari begira, erakusketa entitate gisa pentsatzea gustatzen zait. Garai desberdinetako lanak birdefinitu, birpentsatu edo gaurkotu, eta osotasun gisa aurkeztea.

Niretzat garrantzitsua da obren autonomia, mugak ezabatzea bezainbeste. Dena maila berean jartzea. Haien artean zer mugitzen den ulertzea.

06 / 22

Espazioa/ordena/lasaitasuna berreskuratu du.

Materialak erostera joan naiz carrer Pujadesera, amona bizi zen lekutik oso gertu. María andrearentzat pieza bat egitea bururatu zait, eta hortentsiak etorri zaizkit gogora.

Lleidatik datozen moldeen garraioan egun batzuetako atzerapena egoteak beste bide batzuei jarkitzera/ekitera behartzen nau.

Gutziz erabaki gabe, porexezko piezak edonola itsasten hasi naiz.

Gozagarri zait materialari eta inbertsioari beldurra eta errespetua galtzea. Mihiztadura-akatsak, lotura erdiirekiak, markak, presioa egitean materiala nola deformatzen eta leheneratzen den.

Pieza izugarri handia da dudan espaziorako eta bakarrik egitea erronka hutsa da. Euskarri ezegonkorak bilatzen ditut aparra solidotzen den bitartean, horrela piezaren posizioa aldatuz joan naiteke falta diren zatiak eransteke.

Gutxi gorabehera itsatsita egon denean, buelta eman diot piezari (ezin dut jasan gorantz begira ikustea). Barrez hasi naiz. Alaitasuna berreskuratu dut.

Lagunekin itsasora eraman eta flotagailu gisa erabiltzea bururatu zait, markak izan ditzan.

Goiz batean bulego idazmahai baten gainean nire zain aurkitzen dudala imajinatu dut. Film baten kutsua du.

Gelaren tamainarekin alderatuta duen eskala gustatzen zait.

Chocolate Remix + Kumbia Queersen kontzertura joan naiz, bakarrik.

Kanpoan/barruan/kanpoan sentitu naiz.

Bakarrik dantzatu dut, pertsona mordoa inguruan ditudala. Tipa motak sailkatzeari utzi.

Zer itxura/mugitzeko eta begiratzeko modu du gorputz lesbianoak?

Nire lekua aurkitzea.

Onartua/zerbaiten parte izateko nahia.

06 / 23

Mercat dels Encants. Suge-estanpatudun larru-txatalak, zerrendak, ehoziri-lanezko mahai-zapitxoak, botoiak.

Pareta-pieza txikiago bat lantzen hasi naiz oihala, latexa, larruzko zerrendak eta palmondo-orri bat erabiliz.

Hortentsiak enkargatu ditut

Manikura egin dut

Jatetxe libanoar batean bazkaldu dut

Denbora organikoaz gozatu dut

Gauzak has eta batetik bestera pasa daitezen uzten dut behartu gabe

Poliki nabil oinez

edo gorputzak eskatzen didan erritmoan

06 / 26

Hortentsia urdinak

06 / 28

Asfaltozko mihiak

06 / 29

J. R. <3

06 / 30

Pieza lau pertsonaren artean altxatu dugu ama birjina bat balitz bezala, bakoitzak mutur batetik.

Halaxe eramango dugu argizarizkoa, segur aski gorria, Monegrosen eta Ebroko Deltan barrena⁵.

Argizariak bereganatu ditzakeen arrastoak interesatzen zaizkit, arroz soro berde-berde batean sartu, ibaian...

Hodi/zurtoinetatik ura sartu eta irten dadila.

Pieza bitan moztu dugu

furgonetan sar dadin.

07 / 1

David Bestuéren *Ciutat de sorra* erakusketara bisita gidatua, Fabra i Coats (Bartzelona).

Mâché papera igeltsu, kartoi edo zementuzko zutabeen gainean jarrita.

Ardatz bertikala dute.

Testura dardaratsu, ez itxi, porotsuak bere barne konfigurazioa erakusten du. Sagar hozkatu bat. Azal eta barru latza, hezetasun lehor sentsazioa mantentzen duena. Egunkari deseginaren kolorea. Modelatua. Gorputzaren biribilgune jakin batzuk ardatz horretara eramanak, modu estilizatuan. Gorputz osoa kontzentratzen duen zatia.

Busto batek hegoak dituela dirudi.
Kolore gabeko bugainbilea-lorezko azala.

07 / 6 (Bilbo)

Pieza, alderantziz jarrita, iturri bat izan daitekeela uste dut.

07 / 9

Jaiotzean, lehen artikulazioa lurrarekin da, gure gorputzaren pisuarekin, grabitatearekin. Energiatzko koltxoi bat eratu dut, lurraren eta nire arteko espazio bat.
Lurraren erdigunearekiko imantazioa esekitzearekin konpentsatu dut.
Artikulatzeak posizioa aldatzea esan nahi du, finkatzeari uztea.

Nire erraien barruan egon den norbaiten falta igartzen dut.
(kanta bat entzuten da) *Siempre Así

*Se me va
Este amor que he ido amasando con mis manos, se me va*

*Se me va
Lo que tanto tiempo yo he querido tanto, se me va*

Zuk utzi egin nauzu,
nik (nahita) askatu egin zaitut.

07 / 10

Egitea da hemen kontua
Bultzatzeari utzi nahi diot

Zertarako ari naiz bultzaka? Eraitza bat lortzeko.

07 / 11

Porexezko piezaren moldea egiteko prozesua hasi dugu. Zenbait pertsona ari gara lanean estudioan: Diego Vivanco, Miren Barrena eta Ada Garrués. Hilabete honi geratzen zaiona eta abuztuaren zati bat beharko ditugula kalkulatu dut.

Neketsua eta astuna da eskalarengatik, baina irudi erakargarri batzuk dakar eta beste posizio batzuk aintzat hartzeko aukera ematen dit.

Zatitze-marrak. Pieza zatikatuek, mahaiaren plano horizontalera egokituta, etzanda dauden edo hanka bakar bat mahai gainera altxatuta duten figurak dirudite.

Atsegingarri zait karkasa sendotzen duen hagaxka kurbatuaren marrazkia.

07 / 12

Eibarrera joan naiz Federico Belizónek.

Nire lan-prozesua grabatzen ari da estudioan eta galdategian.

Piezak parkingera atera ditugu haien inguruan ibili eta urrutitik ikusi ahal izateko.

Piezaren ondoko kotxe batek hodi gurutzatundun piezaren bolumen bera du gutxi gorabehera.

Txaparen diametroari buruzko gaizki-ulertu batek eman dit gakoa: diametro txikiagoko hodi goratu bat egitea, zurtoinarene eta 150 cm-ko hodien tartekoa.

Piezen euskarrien ezaugarriei buruzko zalantzak piztu zaizkit: gurdi hidraulikoa?, lantegiko mahai gastatuak?, berriak?

Txapak mota guztietako idazmahai eta mahaien gainean?

Gogoan dut J. R. Amondarainek *Lupa e imán* lantegian erakutsi zidan *The Happy End of Franz Kafka's Amerika* (1994) instalazioa, Martin Kippenbergerrena⁶.

07 / 16

46 cm-ko diametroko hodia – 3 m × 1,5 m-ko txapa bat, kurbatua.

95,5 cm-ko diametroko hodia – 3 m × 1,5 m-ko bi txapa, soldatuak eta kurbatuak.

T'ai Smithen artikulu bat etorri zait gogora⁷.

07 / 17–18–19–20

Diego oporretan dago. Adak eta biok moldearekin jarraitzen dugu.

Lan errepikakorra eta fisikoa da, eta *podcast*ak entzunez arinagoa egiten saiatzen gara.

Entzundako guztitik Sara Torres idazleari egindako elkarrizketa batekin geratzen naiz, adiskidetasun-harremanen haustura edo urruntzeari buruzkoa⁸.

Kontakizun txiki batengatik jasotako kritika txarrak askatu egin zuen Virginia Woolf "atsegin ematen ziona egin eta idazteko, eta esan zezatela nahi zutena"⁹.

07 / 21

Galdategia bisitatu dut Manuel Cirauqui eta Jose Morilloekin.

Vicente Larrearekin egin dugu topo. Berotuta dabil bere azken eskulturarekin. Grekoaren jantziak gogorarazten dizkit.

07 / 22–23 (Madril)

Goiaren freskoak San Antonio de la Florida elizan. San Antonio Paduakoaren miraria kupulan. Neskatala baten xal zuria edo soinekoaren oihala, bertaratuak begira dauden barandaraino zabaldua. Aingeruek benetako haurrak dirudite, nola jolasten, ezkututzen edo azaltzen diren, oihalak nola altxatzen dituzten eta abar ikusita. Bereziki erakargarri egiten zaidan gunen ilun bat dago, aingerutxo baten ipurdia eskaintzen da bertan.

Arrosa-lorategia.

*Nigandik neuganaino goratu.

07 / 24

Paula Vilageliurekin tutoretza Uhartan. Badago lana eta lana aurrera doa. Konfiantza prozesuarengan, arretan. Haren lehen ideiak materialki agertzen hasi dira, gertatzen hasi dira. Bideoak ere pilatzen ditu. Jarduera paralelo gisa, lanean ari denean eta piezak lekuz mugitzen dituen bere burua grabatzen du, etxeko espazioan elkarbizitzako momentuak eta beste neska lankide batzuekin partekatutako prozesuak atzitzen ditu. Erabakitzeko unea, forma eman eta material hori egituratzekoa. Inazio Escuderoren *Date* (2005) bideoa ikusi dugu elkarrekin. Ioana Hernándezekin tutoretza bere zeramika lantegian, gaur ezagutu dugu elkar.

Bere amonaren loreontzi batetik abiatutako zeramikazko piezekin ari da lanean, luzangak, simetrikoki kontrajarriak.

Tapaki, hesgailu eta zaldi-zingilaz biltzen ditu.

Keinuak oraindik lotsatiak dira. Artikulazioak lanaren osagaiak bat egin eta eraldatzea falta da.

Gehiago ezkutatu? Jatorrizko forma apur bat askatu.

Ezkutatu, beste zerbait agertu dadin.

Gauzak ikusteko egiten dugu lan?

07 / 25

Artiatx. Estanis Comellaren erakusketa. Josu Bilbao da komisarioa.

Maiak eta biok larunbatean duen kontzertuko entsegu batera geratzeko pribilegioa izan dugu. Ederra da espazioak nola islatzen eta anplifikatzen duen haren ahotsa. Harmonikoak, ahotsa + oinarria. Edertasuna. Barru-barruan egotea. Intimitate partekatua. Durundi egitea, beste batzuk aurrean daudela.

Formekin eta materialekin hori egitea lortu nahiko nuke.

*** Uzurtu egin naiz, existitzeari eta hedatzeari utzi diot > norbait hurbiltzen denean, norbaitek zalantzan jartzen nauenean, nik neuk neure burua epaitzen dudanean.

07 / 26

Argi berdea galeriaren laguntzaz galdategian pieza bat egiteko (ez zait aurrekontuan sartzen).

Manikura

Ile-apaindegia

Arropa garbitzea

Maleta

07 / 27 (Milan)

Fonderia Battagliara bisita (molderik gabe lan egitea merkeago izan dadin):

-Nahiko zurruna eta apur bat zeharrargia den argizari batekin 3Dn inprimatzeko aukera, hondakinik utzi gabe zuzenean galdatu daitekeena.

- Poliestireno hedatuzko eredu mekanizatu bat, zuzenean errea.

Patinen katalogoak atentzioa eman dit. Lehen aldiz, kolorea jartzeko gogoia dut.

Galdategiko artxibategiko irudiak ikusi ditut. Atentzioa eman didate Katinka Bocken igeltsutan tailatutako ereduak eta egite-prozesuan diren Giorgio Andreotta Calòren marmoken argizari batzuek, geruzaka pigmentatuak.

argizari horiaren gainean argizari gorria eta gainean argizari urdina

Argizaria azken material izan duen piezarik ekoitzi duten galdetu dut. Argizariak egonkorrago bihurtzeko formula bat dute, argizari mikrokristalinoa + kolofonia-erretxina gehituta lortzen dena.

07 / 28 (Florentzia)

Santa Felicita eliza > Pontormoren *Kristoren eraistea*.

Museo Bargello > ezpataburuak, sastakai ondulatuak, armadurak eta kaskoak.

07 / 29-30 (Bologna)

Museo Poggi > argizarizko eredu anatomikoak. Obstetrixari eskainitako aretoa. Erditzean egon daitezkeen arazo guztien ereduak.

Plaza Nagusiko San Petronio basilikaren sabaiko nerbioa gogorarazten duen egitura muskularra.

Norabidea, bultzada.

Gainera joan eta eutsi.

Adierazpen izoztuak hustua dirudi.

Atsekabea jantzi eta izurretara eramana.

07 / 31 (Erroma eta Arpinorantz)

Lagunekin elkartu gara.

Nire *feedback*aren ondorioz, Miren Agur Meabek solemnitatetik ihes egiten dudala eta protagonismoak deseroso sentiarazten nauela hauteman du.

08 / 1 (Arpino)

Emanuele Cocciaren irakurketak:

Jantziek agerrarazi egiten gaituzte.

*Subjektua irudi bilakatzen dute*¹⁰.

Ehunak *Velos (párpados)*¹¹ piezetan nola funtzionatzen duen pentsarazten dit. Pieza batzuetan estaltzeko keinua ikusten dut; beste batzuetan keinua ikusezina da. Estaltzeak agerrarazi egiten du. Errezela eta hark estaltzen duena banaezinak dira eta irudi gorpuztu bakarra osatzen dute. Marc Navarrok aipatu egiten du gertaera¹².

Substantzia edo objektu desberdinen interakzioak sortzen dituen hiru lotura mota:

alboan jartzea

bat egitea

erabat nahastea¹³

Miren Agur Meaberen poemak ozen irakurri ditugu, nire pertzepzioa anplifikatu egin da beste ahots batzuetan entzutean.

08 / 2 (Arpino)

Mendira txangoa. Sasi baten zurtoina ikusi dut, eta beste zurtoin tipologia batzuk erregistratzeko aukeran pentsatu dut. Hodi horizontal handitu eta goratuak.

Martak *On Kixoteren* lehen liburuko Marcelaren diskurtso protofeminista irakurri digu.

08 / 3 (Arpinotik Erromarantz eta Palermorantz)

Museo Massimo > Villa Liviako freskoak

*Lausoa den hori.

08 / 4 (Palermo)

Sizilia, irlaren kontzientzia, penintsulatik oso hurbil dagoela jakiteak lasaitu egiten nau.

Lorategi botanikoa, ficus izugarri handiak, sustraiek zurkaiztutako adarrak.

08 / 5

Haizeak ez digu Filicudirantz abiatzen utzi eta Cefalún geratu gara.

Inprobisatu egin dugu eta *piano piano* gerturatu gara.

Gainetik nagoela sinesteari uzteak nire zaurgarritasunarekin kontaktuan jartzen nau.

08 / 6 (Salina)

Itsasontziz egin dugun ibilbidean askatzeko beldurra sentitu dut.

Lurrarekin geroz eta kontaktu gutxiago. Lurra berriro zapaltzeak lasaitu egin nau.

08 / 7-8-9 (Filicudi) <3

The Waves (Virginia Woolf)¹⁴

Lo que hay (Sara Torres)¹⁵

08 / 10 (Palermo)

Santa Maria Martorana konkatedrala.

San Cataldo eliza.

08 / 15 (Bilbo)

Ehunak eskaneatzeko eta orratzekin egindako marrazkientzako barne logika bat aurkitu behar al dut?

Errepikatzen ditudanean zentzua galtzen ote dute? Edo pilaketarekin irabazi egiten ote dute?

Musika-pieza edo partitura baten (adibidez) sekuentzia-logika edo itzulpena erabat behartua izango litzateke nire kasuan.

Nire sistema uste dudana baino hurbilago dago. Errepikatu, behin eta berriz egin, nire buruaz aspertu berriro zentzua emango dion bariazio bat aurkitu arte.

08 / 16

Sasiaren arantzak muturretatik elkartu nahi ditut. Muturrak eta hodi jarraitua.

Sasiaren argazkiaren bila nabil, baina landare-motibo itxura duten ezpataburuen argazkiak aurkitu ditut.

08 / 17

Diegok eta biok aurrera egin dugu moldearekin. Amaitzea, hori besterik ez dut nahi, eta iraila baino

lehen berriro egun batzuetarako oporretan joatea.

(Ametsa)

Nire gorputz biluzia etzanda ikusten dut neure begietatik. Gorputz iletsu eta zakilduna bihurtzen hasten naiz. Gorputz hori ezagutzen dut.

Beste pertsona bat hurreratu eta nire alboan esertzen da belaunen gainean. Ukitu egingo nau eta ni, gorputz horren barruan edo haren menpe, airerik gabe sentitzen naiz. Bataren eta bestearen artean, desagertu egiten naiz.

08 / 18

(Ametsa)

Erromako Accademian beka bat ematen didate (Ateliers eta Casa Velázquez arteko nahasketa).

Eraikinean zehar nabil gidatzen nauen atezain batek lagunduta. Zaindu egiten naute. Gainerako artista bekadunak kokatuta daude jada eta ni zertxobait beranduago iristen naiz. Leihorik gabeko espazio bat ez izatea erregutzen dut. Azkenean leiho handi bat duen espazio batera iristen gara, lasaia asteburuan, jendetsua aste barruan. Ikuspegiak eguzkia eta zuhaitzak dituen ertz batera ematen du. Une batez bakarrik geratzen naiz nire txokoan eta hartaz gozatzen hasten naiz. Instant horretan tipo bat motoan sartzen da abiada bizian, eta bitxiak lapurtzen dizkit.

08 / 21–22

Moldea estudioan bukatu dugu.

Izugarri handia eta pisutsua da. Barrualdeak kobazulo bat edo hezurrezko gune bat dirudi, garezurrekoak bezalako josturak dituena.

Lokatzez zikinduta dauden eta zati puskatuak dituzten porezezko atalak berrantolatu ditut. Binaka batuta, belaunak, ukalondoak edo bestelako artikulazioak dirudite. Ugaztun handiren baten bizkarra edo izterra ere bai.

Gainazal beroa, bizia.

08 / 23

Terapian ordena jarri dut.

08 / 24

Hondartzara joan naiz.

Gustuko dut planak bakarrik egitea.

Atzeratu ohi ditudan gauzak egitea.

08 / 25

Kirol apur bat egiten hasten naiz.

08 / 26 (Valentzia)

Imajinazioa/inspirazioa/ihesbidea.

Federico García Lorcaen hitzaldiak¹⁶.

Ozen eta jarraian irakurtzen ditut beren errepikapen, bariazio eta interpretazio desberdinekin.

“**Imajinazioak** ohiz kanpoko harremanak deskubritu, antolatu eta sortzeko jarreran jartzen gaitu. Baina ez da munduaz libratzen!”.

“**Inspirazioa** arimaren egoera bat da, fede-egoera bat, apaltasunik erabatekoenaren erdian”.

“... nahi (dut) eta ezin (dut) maitatu”.

08 / 27

Andrea Davilak gomendatutako Jane Bennetten *Vibrant Matter*¹⁷ liburuko lehen kapitulua irakurri dugu ozen. Poztasun handia sentitzen dut, aspaldi gertatu beharreko topaketa batena bezalakoa.

Gauzen boterea

08 / 29

Battagliarako aukerak pentsatu ditut:

Sasi-zurtoin zuzen eta horizontala (1,5–3 m) / patinadun kolore-gradazioa.
Molde bat egin eta segmentu bat errepikatu?

Sasi-zurtoin kurbatua —ezpataburua bezalakoa— sastagai ondulatua¹⁸.

08 / 30

Bertikal guztiak posizioz aldatzeko aukera otu zait.

Zutabetik hodi horizontalera pasatzea.

08 / 31

L'Écorce

09 / 4

Eva Hesserren egunkarien pasarteak irakurri ditut berriro¹⁹. Edizioari erreparatu diot.

09 / 5–6

Asti nahikoa hartu lanari beste norabide bat emateko. Kontraste handia sortzen duen materialen bat gehitu.

Argizari pigmentatua (edo are porexa ere) behin betiko material gisa?

Piezak ELKARREN ONDOAN ikustearen garrantzia/INGURUAN IBILTZERA behartuko nauten hainbat zeregin izan/urrundu, irten, atea zabaldu eta itzuli, piezak ahaztu eta berriz aurkitzea.

Ezinbestekoarekin geratu.

Erortzen utzi.

Inausketa/edizio/garbiketa prozesua:

Uraska + egiturak, aldamioak, euskarriak eta zurkaitzak.

“Aire gehiago”²⁰.

09 / 7

Zubi-forma osatu, kiribiltzen diren gorputzez, komunikatzen diren lepo-ahoz osatutako gorputz biribila balitz bezala.

Bi katalogo Manuel Cirauquiren mahai gainean Guggenheim Bilbao Museoko liburutegian.

Metalaren nolokotasun bigunean pentsatu dut. Berunezko xaflak, eztainua, alanbrea. Altzairuak brontzearen fusio-tenperatura jasaten du, eta metal batek bestea besarkatzen du. Aluminioa tenperatura baxuagoan urtzen da, eta eremu hibridoak eratzen ditu, non bi metalak nahasten diren. Galdaketatik gustatzen zaidana zera da, moldearen bitartez gai dela argizariaren eta beste edozein materialen biguntasuna kopiatzeko. Ebaki dezaketen ertzak izan arren.

6 mm-ko diametroan hagaxka uzkurtu bat arazorik gabe toles dezaket nire besoen indarrak. 8 mm-ko hagaxka tolesteko erreminta behar dut.

Altzairuzko xafla bat gurina bezala ebakitzen da plasmarekin.

Leialtasunak moztu / Sufriarazten didanarekiko daukadan adikzioarekin neure baitan moztu.

Aste honetako egun batean azken urteko artxiboak begiratu ditut mugikorrean, argazkien bila, erdizka geratu zen zerbaiti berriro ekiteko asmoz. Harrituta utzi nau 2022ko urtarriletik ekainera estudioan zenbat lan egin dugun, eta krisiak jota utzi nau. Produzitzeko inertiak, erritmoak eta motak antzematea.

*Tell Them I Said No*²¹

“How the needs of the artist and the needs of the art world diverge”.

Erakusketen eta harremanen artean tartea uzteko beharra.

Merkatua ez zerbitzatzea eta harentzat ez produzitzea, edo nire jardunbidea baldintzatu dezala ekiditea.

09 / 9

Libreki ibiltzeko gunea.

Prest egotea

Ez tematu blokeoa kentzen, barrurago jo eta handik hedatu.

Zutik egoteko eusten didan laguntza-sarea desegin.

Urteetan zehar sortutako gorputz EGITURAK askatzeko modua aurkitu, beldurraren ondorioa baitira:

Tentsioa masailezurrean — artikulazio atlanto-okzipitala itxita >

garunaren eta gainerako gorputzaren arteko komunikazioa etetea.

Kontrol-sentsazio faltsua.

09 / 12–13–14

Doktoretzari berriro ekin—organigrama—tesia aurkeztu 2026ko otsailean.

Genealogia bat marraztu.

Elkarrizketa metodologia gisa.

Beste artista batzuen ispilua.

09 / 15 (Uharte Zentroa)

Paula eta loanaren master amaierako lanaren azken fasea. Jarraipen puntuala izan da. Pozgarria da garapena eta lanarekiko konpromisoa ikustea. Geure buruari prozesuan sartzen uztea.

(loanarekin elkarrizketa)

Bidea praktikatik abiatuta aurkitu, segurtasuna ematen diguten jarraibideak askatu ahal izateko. Eman diezaioket baimena neure buruari “itsusia”/“gaizki egina” den zerbait egiteko?

Elementu berberen bariazioetan, elementu-errepikapenean, konbinazio metodoan jarraitzearen segurtasuna.

Zaldizkoa ala zaldia izatea.

09 / 16

Olga Balemak elkarrizketa batean deskribatzen duenez, hitzaldi batean artista bati buruz hitz egiteko hari buruz ikertu ondoren, hark bezala pentsatzen edo egiten harrapatzen du bere burua.

09 / 17

Egunak daramatzat amaitu gabe ditudan piezekin kezkatuta. Nire baitan, tristezian edo etsipenean kokatu da nire zati bat, dena definituta eta aldatzeko aukerarik gabe egongo balitz bezala. Ezgauza sentitu arren, oraindik ekiteko eta lana neure egiteko astia badudala uste dut.

Kolore argiko alkandora tolestu eta trokelatu baten irudi garbia.

09 / 19–20

Kementsuago eta energiarekin jaiki naiz. Erabakia: nire agentzia berreskuratzea, oraindik lanari norabide berria emateko aukera badudala sinistea.

Goiz esnatu eta nagikerian egon gabe jaikitzeak on egiten dit. Nire pentsamenduak menperatzea lan-eremua errazteko. Eskuragarritasuna eta konfiantza.

Ezetz esateko gai izan naiz.

Ez dut eskaeraren arabera produzitu nahi, ez inertziagatik, ez atsegin emateagatik, ez...

Neure buruari entzun eta neuretzat benetan zer nahi dudana pentsatu beharra dut.

Kontzentratuta aritu naiz Frieze Londonerako bi pieza lantzen (kontraesanak). Lasaitu egiten nauen entrenamendu edo ariketa txikia dira. Horietako bati lehenagoko pieza baten antzeko bariazio gisa heldu diot. Bestea hondakinekin egin dut. Lortutako forma helbururik gabeko zatiak egokitzeo zailtasunaren emaitza da. Zerbait berria ateratzen ikusteaz gozatu dut.

Aldibereko prozesu ugari ditut galdategian. Begiratzeko eta ibiltzeko aprobetxatzen dut zatiak mozten edo soldatzen dituzten bitartean. Arreta lausoagoa, zeharkakoa, pieza handiengan.

Paraleloki, Aitor molde bat garbitzen aritu da presiopeko urarekin, eta mahuka urdina hurbil ikustean piezetako bati eransteko gogoia eman dit.

Brontzea plastikozko mahukarekin zeharkatu dut. Zerbaitek poztu egin nau hor: koloreak, materialtasunak, zirkulazioak, piezatik ura ateratzen ikusteak.

Susana Solanoren *Artificios* erakusketa Carreras Mugica galerian — GAZTETASUNA

Lotsa apur batekin, metalarekin egindako zenbait prozesuren hoztasunak eragiten didan kezka adierazi diot. Xafla kurbatuzko piezekin arriskatzera animatu nau. Muntatzean, soldatzean, bihurguneak agertuko dira ziur, pieza gizatiarra goa egingo dutenak.

09 / 21

Eibarrera bidean, ni ezagutzean norbait harritu egin zela gogoratu dut. Bere ustez, nire lanetik eta nigandik jasotzen zuena ez zetozen bat.

ERABAKITASUN-energia

Egunero lantegira joatearen garrantzia.
Ez da ordu kopuruaren kontua.
Batzuetan denbora gutxi izateak lagundu egiten du.

Brontzea pintatu Pello Irazuk bezala? Piezaren bati patina eman beste akabera bat izateko?
Enbarazu egiten didaten aurreiritzi asko desegin beharra.

Kostatu egiten zait Bilbon erakustea (haztea).
Neure mamuetatik (irakasleak eta kideak) askatzeko beharra sentitzen dut, eta izateko baimena ematekoa.

Helburu horretan animatzen nauten artista batzuen erakusketen irudiak begiratu ditut berriro. Sarah Lucasen erakusketa baten irudi bat gorde dut; tamaina handiko inpresio bat agertzen da: kamiseta bat, zuloxoetatik titiburuak ageri dituela (islatutako irudia da), jakintzat ematen dut bere gorputza dela, bere kamiseta.
Areto berean daude brontzezko kalabaza itxurako pieza erraldoi batzuk eta zakil bikoitz bat, hura ere eskala handian eta metalez egina, patina zuriz estalia.

09 / 22

Ibai Labega eta biok ametsetan aritu gara brontzezko peoniek eta uniformeetako gonon oihal tolesdun eta koadrodunekin piezak egiteari buruz.
Horretan lan egiteko datak jarri ditugu.

09 / 23²²

Nik aukeratu ezean, nire inertiak aukeratzen du.
Ihes egiteko mila moduen artetik, bertan geratzea da gauzak gertatzeko modu bakarra.
Erronka bati aurre egitearen ideiak tentsioa, bultzada, pazientziarik eza eragiten ditu. Badago lortu "behar dudana" zerbait.
Munduan beste nonbait udaberria da.
Badira beste modu batzuk:
plazerez, gozamenaz eta dibertsioz egitea.
Desioa beharraren orde.

NEURE BURUA DESIDENTIFIKATZEA NAIZENA IZATEARI UZTEKO MODUAN EGOTEA

EZEZAGUN Z Aidana izatea

NIRE FORMA UZTEA / FORMA IZATEARI UZTEA – AMORFOA IZATEA – FORMALDATZEA – BESTE FORMA BAT HARTZEA

formak > metamorfosiaren orbainak²³

09 / 24

Lantzen ari naizen erakusketa gaizki aterako dela aurreratzen ari naizela konturatu naiz.

EZEREZTU EGIN DUT PENTSAMENDU/SENTIMENDU HORI.

BALIOA EMAN DIOT nire lanari.

Nigan aldaketak egiteko nigan presente egon behar dut ezinbestean.

Ezinezkoa da alienatuta banago, nigandik at.

09 / 26

Bilera Jorge Satorre, Mònica Planes eta Àlex Palacínekin. *Feedback* bila nabil, kanpoko (eta beste testuinguru bateko) begirada baten bila, hain zuzen. Lasaitu egin naute, eta egindakoari eutsi diot. Figurazio-maila handiagorako baimena eman diot neure buruari. Azkenik bi zurtoin egongo dira.

10 / 4-5

Argizarizko azken pieza muntatu dugu, metalezko egitura batek zeharkatuta. Arriskutsua izan arren, buelta ematen tematzen naiz alderantzizko posizioan ikusteko, beste piezatatik gertu. Eskalan izandako akatsak eta handitzeak gainerako lanekin bat egiten duten neurtu beharra daukat.

Bi, hiru, lau hanken gainean altxatzen dela dirudi. Ebaki bat aldakan, gandor iliakoen altueran.

Enbor hustua.

Barrutik ura pasa eta osagaien junturetako arrakala batzuetatik ateratzeko nola egin nezakeen pentsatu dut. Pieza hainbat zirrikitutatik txiza egiten irudikatzea gustatzen zait.

10 / 6

Arropa tolestuei argazkiak egin dizkiegu.

Eskaneatzeak dakarren lautasunaren aldean bolumen handiagoa dute.

Arropekin batera, euskarri itsaskorrean itsatsitako ileek eta hautsak duten garrantziaz jabetu naiz, neurri handiko inpresioen publizitate logikatik kanpo.

Bihotz nikia/Lore nikia

Konpromisoa: egiteari utzi ezin zaion hori.

10 / 9

Bilboko aireportura bidean tristezia sentitu dut; aitarekiko urruntasunak umetan eragiten zidan tristezia gogorarazi dit.

Manuel Cirauquirekin bilera Bartzelonako aireportuan — errealitate-kolpea:

Nola konpondu aseguru etxeek maileguzko piezantzako ezartzen dituzten segurtasun-neurriak eta baldintzak?

Xafla, ohol eta abarretan pentsatu dugu; zailtasun berezia eskultura exentuetan, adibidez, zutabeetan. 3D idulkiak eta plataformak marraztu ditut proba gisa. Piezak beira arasetan daudela ematen du. Ez zait bat ere gustatu.

Mota horretako neurriak behar dituzten maileguak kentzea bururatu zait.

Piezen eta espazioaren arteko harreman naturala apurtzen dute. ZORU BERBERA ZAPALDU BEHAR DUTE.

Bartzelonatik Basileara noa hegazkinez. CRAC Alsacera bidean. Lucía C. Pinoren *Crines*²⁴ ia osorik irakurri dut.

Nire hartzaroarekin lotutako supermerkatu frantsesa. Iruñean oraindik saltoki handirik ez zegoen garaian Baionara joaten ginen hipermerkatuan erostera. Familiaren denbora-pasa izaten zen. Esnekien sail amaiezina, kosta egiten zait jogurt “normal” bat aurkitzea, ez dut erratuta gazta freskoa eraman nahi. Erosketa haietan gaztaina-krema izaten zen nire grinarik handiena. Aurkitu egin dut.

Gogoan dut ikastolan lagunekin parte hartu nueneko tarta-lehiaketa (lehena eta bakarra izan zen). Enbor moztuaren itxurako pastela egin genuen (Mathilde Rosierrek egiten dituenen antzekoak), eta gaztaina-krema zeraman. Polita geratu zitzaigun, baina gogorra eta jangaitza ere bai. Gogoan dut, dastatu aurretik, gure inozentzian, irabazletzat jo genuena geure burua.

Urduritasuna sentitzen dut.

GERRA

10 / 10 (*L'écorce* erakusketaren muntaia, CRAC Alsace. Komisarioa: Elfi Turpin)

Ziurtasun batekin esnatu naiz: tapaki eta alfonbra gorriak sartu nahi ditut alderantziz dagoen piezako ebaki eta irekiduretan. Agian ebakiak egin eta tamaina txikitu.

Atzo Manuelek erakutsi zidan korralaren irudia datorkit gogora.

Gelatik kanpoko soinuak interpretatzen ari naiz.

Bakarrik egon arte ez dut irten nahi.

Garbitzailea baino ez dagoela ulertu dudanean lortu dut irtetea.

Bihar goizago jaiki behar dut etxean inorekin topo ez egiteko. (Ez dut lortu, eta eskerrak. Ana Vaz eta bere familiarekin elkartu naiz gosaltzerakoan, eta atsegina izan da).

Atzotik nabari dut usainekiko oso sentikor nagoela. Bat-batean nazka ematen dit jogurtaren usainak eta garbiketa produktua oso desatsegin egiten zait.

Rosemarie Trockelen *Post-menopause* katalogoa jaso dut.

Ehunak matrize moduan erabilia zuzenean tinta jarri eta estanpatzeko gogoa sartu zait.

10 / 11

*Visual pleasure*²⁵ / Z.-k eragiten didan erakarpena.

Neure eskulturen aurrean arrotz sentitzen naiz. Urrun sentitzen naiz.
Hala ere, haiek berriro begiratu eta nireak direla antzeman dezaket.

10 / 12

Ez dut nire lana erakusteko ilusiorik sentitzen (ez dakit orokorrean den). Hein handi batean azken egunetako tristeziaren arrastoagatik dela uste dut.

Gaza modu gizagabeen bonbardatzen ari dira.

10 / 13

Lehen orduan bi kandela piztu ditut.

Etengabeko asegabetasun sentsazio zaharra alde batera utzi, perfekzionismoa alde batera utzi.

Gogoratu beharrekoa: formei lagun egitea bera baliotsua da. Haiek existitzea lorpen bat da. “[...] egiteko modua asmatzen duen egiteko modu bat, horrek esan nahi du saiakeren bidez egiten dela aurrera, eta horrelako eragiketa baten emaitza ona, zehazki, lorpen bat da. [...] Lorpenak, behar bezala egin denean, bere lege propioa adierazten du argi; lehenago, aitzitik, prozesua oraindik egiten ari denean, ez dago arau argirik, izan ere, egitearen ekintzan bertan aurkitu behar da arau hori. [...] Lortu denean, lorpena ezin da banandu”²⁶.

Hemen daude, ez ditut gehiago epaituko.

(Neure buruarekiko) konparazioak egiteari utziko diot
Neure baitan naiz.

10 / 15

Mathilde Rosierrekin hizketan aritu naiz etengabeko asegabetasunak lanean jarraitzeko ematen duen indarraz. Prozesuaren parte da.

Asegabetasunean ainguratzea, horixe da aldea. Urte askotan sentimendu horrekin identifikatu naiz, eta neure buruari ez diot utzi pozik egoten eta lorpenak ospatzen.

Igande goiz batean eta periferian²⁷ inauguratzearen alde ona ikusi dugu. Arreta ezberdina da. Erakusketa hiri-erdigunean egitea eta ikusgarritasun handiko une bat izatea opari pozoitua izan daiteke.

Erakusketa bat bakarrik, denboraz eta barne-egoera jakin batekin bisitatzeak benetako topaketa errazten du.

Erakusketa bat hainbat aldiz bisitatzea. Pertzepzio desberdinez jabetzea. Lan bera momentu desberdinetan erakusteak haren baitan sartzea ahalbidetzen du, hari buruz zerbait esan ahal izatea.

10 / 16

Velos eta *Acts of Pulse* sailetako pieza guztiak CRACeko erakusketan elkartuta ikusteak azken urteko lan egiteko moduaren aurrean jarri nau, eta horrek areagotu egin du nire krisia. Espazioaren egitura, kasu honetan, oso konpartimentatua da, eta piezak banan-banan topatzen dira, elkarrekin harremanean ikusteko aukera ematen duten sekuentziak eratu ezinik.

Gustuko dut Mathilde Rosier eta Ana Vazen lanarekin nahasteak eragiten duen bitxitasuna. Ez dute elkar ukitzen baina elkarrekin daude, elkarri eragiteko edo bata bestearekin kutsatzeko modua espazioan zehar ibiltzean gertatzen da, behartu gabe. Apur bat gogaitzen nau erritmo eta eskaera jakin batzuei erantzuteak. Ikusgai egoteak neure burua ezkutatzeko nahia eragiten dit.

Ez da eroso, baina krisi honek zer dakarkidan ikusi nahi dut, zeharkatu egin nahi dut. Agian hartutako forma baten galeraren hasiera da. Onartu, gogoan hartu eta nahi dudanarekin bat ez datorrena, koherentea iruditzen ez zaidana aldatu.

Existitzen diren objektuetatik zuzenean ez datozen formak sortzen saiatu nahi dut.

Molderik behar ez duten lan egiteko moduak aurkitu errepikapena/ bariazioa/konbinazioa erabilita.

Denboraldi batez metalarekin lanik ez egitea.

Erreproduzitu beharrean, ikertzeko denbora nahi dut.

Sortzen ari garen gorroto-espiralaren aurrean: MAITASUNAK
MAITASUNA DAKAR, Teresa Avilakoa

APALA IZATEA JASOTZEN DITUGUN DOAIK AITORTZEA DA
HORTXE IKUSTEN DUGU [...-K] DENA EGITEN DUELA ETA GUK EZ
DUGULA IA EZER EGITEN

APALA IZATEA GEURE ERDIGUNEAN EGOTEA DA
APALTASUNA EZ DA EPELKERIA
PORROTAK GORABEHERA GOGO BIZI ITXAROPENTSUA IZATEA
BAIZIK

APALTASUNA [...-RI] EGITEN UZTEA DA

Rosemary Mayer:

“Making something that makes itself—letting things be themselves—finding a way that gives room to let the colors [shapes] play—the process makes the art—but now maybe it is fine to take this so far and go further.”²⁸

10 / 17 (Eibar)

Akidura fisikoa.

Behin baino gehiagotan gelditu naiz gorputzak hala eskatuta.

2,26 × 2,90 m-ko argizari-pieza baten gainazala lantzen ari naiz xehetasun handiz.

Presatzen dut, baina neure buruari denbora eman eta poliki lan egitea erabaki dut, zereginak eskatzen duen erritmoan.

(ezin gogoratu nabil platerak garbitzen ari nintzela burura etorri zaidan pentsamendu garrantzitsu bat).

[Itzulpena: Bakun;
Egokitzapena: Guggenheim Bilbao Museoa]

Oharrak

1. Bai Manuel Cirauquik, bai David Bestuék nire lanean eskala handiagoak esploratzera animatu ninduten eta Bartzelonara egindako bisita batzuk baliatu nituen Moisés Puenteren liburutegian hainbat arkitektoen obra ikertzeko Moisés bera, Miquel Mariné eta David Bestuérekin batera. Saio haiek asko astindu nindutela gogoratzen dut, eta gerora jarraitu ditudan arkitekto askoren —adibidez, Smiljan Radić— lanekiko sentsibilizatu ninduten. Elkarrizketek Berta Gutiérrezekin jarraitzen zuten Julia Spínolarekin batera zuen etxean, han geratzen bainintzen. Hark erakutsi zidan Petra Blaise-ren lana. Arkitektoei begiratzen nien haiengandik zerbait jaso nahian. Gogoan dut nire eskulturentzat pabiloi bat egiteko desioa. Lehengo saiakerak hutsune handi biribilen bidez hustutako pareta izan ziren. Hormigoizko eskultura txikietan lan egitea erabaki nuen arrasto ziurragoak emango zizkidan hurbilketa bat izateko. Hutsune biribildun horma erdi kurbatuak. Geroz eta konplexuagoak. Forma haiek eskatzen zituzten kofratuak izan ziren niretzat deigarriena. Moldeak kartoizko hodi gurutzatuak ziren, eta sortzen zuten forma bera baino erakargarriagoak iruditu zitzaizkidan. Hala hasi nintzen maketan hodi desberdinak sartzen eta hodiekin pareten funtzioa izan zezaketela pentsatzen. Hasiera batean funtzionalak ziren elementu horiek eskultura bilakatzea eta haientzako materialtasun eta eskala egokia aurkitzea izan da ondorengo lana.
2. JAI (Jardun Artistikoen Institutua) artistentzako ikasketen programa bat da Itziar Okariz, Asier Mendizabal eta Ibon Aranberri kontzeptualizatua eta zuzendua. 2020an hasi zen udako eskola gisa eta Tabakalera (Donostia), Artium (Gasteiz) eta Oteiza Fundazioan (Altuza) garatzen du bere jarduerak. JAI galdera baten inguruan egituratzen da, irakasle taldean sartzera gonbidatzen diren pertsonen egiten zaien galdera bera: Zure lan prozesua definitzen duten ezagutza praktikoa, besteei zein transmititzeko gai zara?
3. Anna Manubensek Hangarren egonaldi bat egitea proposatu zidan Soriguerekin elkarlanean materialak ikertzeko.
4. Bartzelonako Arts Santa Mònica antolatutako erakusketa, komisarioak: Èlia Bagó, Marta Echaves eta Sara Torres. 2023.06.14 –2023.09.25.
5. Mònica Planesek eta David Bestuék puntu geografiko batzuetan zehar ibilbide bat egitea proposatu didate eskultura bat kamioi batean eramanda. Erakusketa ibiltari bat prozesio eta ospakizun moduan. Pieza zenbait pertsonen artean eramatea da ideia, paisaia desberdinetan. Ahalegin fisiko eta izerdia egon daitezela. Denok batera bazkaltzea.
6. 2005ean Artelekun Iñaki Imazek koordinatutako tailerra.
7. *Close-ups of fabrics*: “The intimacy of a woven texture was particularly suited to the scrutiny of the lens. The slight swellings, recesses, and shadows produced by the crossing of weft and warp, the way the fabric folded or creased, or the subtlety of the tactile sensations generated by wool against cellophane seemed infinitely refined when framed by the sharp focus of a precise optical apparatus. [...] Photograph helped to present textiles as structurally, materially, and industrially sophisticated products. With detailed close-up photography, the textures came into focus, and with framing that implied the potentially infinite field of fabric, the photographs highlighted the sense of textiles as tactile phenomena.” T'ai Smith, “Limits of the Tactile and the Optical: Bauhaus Fabric in the Frame of Photography”, hemen: *Grey Room* 25, The MIT Press Journals, 2006ko udazkena.

8. Radio Primavera Sounden ziberlokutorioa. “Dejar ir” irratsaioa, Sara Torres gonbidatuarekin.
9. Javier Peñaren *podcasta*, Virginia Woolfi eskainitakoa, *Grandes infelices. Luces y sombras de grandes novelistas* saioaren hirugarren denboraldia.
10. Ikus: Emanuele Coccia, *La vita sensibile* Il Mulino, 2023, 187–88. Or. (italieratik M.-k itzulua).
11. *entre alguien y algo* erakusketa, Carreras-Múgica, Bilbo, 2022.
12. “*Velos (párpados)* bezalako piezak gertaera baten aukeraren ikuspegitik begiratuak izan behar dira, beren izaera performatiboa aintzat hartuta. Baina eskulturaren izaera transformatiboaren esplorazio gisa ere bai; Cresporentzat ikerketa-eremu zabala da hori. Pieza beraren gainean egindako ondoz ondoko bariazioen helburua ez da konplexuago bihurtzea, baizik eta praktika modu ez hain zurrunean egitea, keinuari dardara itzultzea eta eskulturari berriro agertzeko aukera ematea. Merleau-Pontyren hitzak aintzat hartzen baditugu, berreskuratzea ‘inoiz ez da berrezartzea, ezkutatzea baizik’ esaten duenean, orduan estaltze horren helburua ez da forma bat sortzea, presentzia bat berriz osatzea baizik. Arreta ez da zuzentzen, beraz, zer uzten den agerian eta zer estaltzen den erabakitzea, baizik eta opakutasuna berrezartzera, eta, paradoxikoki, horrek eskultura berriro osoki agertzea ahalbidetzen du”. Marc Navarro, “Más Graves”, hemen: *Vieron su casa hacerse campo*, erak. kat., CA2M, Madril, 2023, 61. or.
13. Emanuele Coccia, *La vida de las plantas. Una metafísica de la mixtura*, Miño y Dávila Editores, Buenos Aires, 2017, 57. or.
14. Virginia Woolf, *The Waves*, Penguin, New York, 2000.
15. Sara Torres, *Lo que hay*, Reservoir Books, Bartzelona, 2022.
16. Federico García Lorca, *Conferencias*, Editorial Comares, Huerta de San Vicente 19 bilduma, Granada, 2001. Prentsako hainbat artikuluren bost bertsiio biltzen ditu argitalpenak, eta 1928 eta 1930 artean hainbat lekutan egin zen hitzaldi horren transkribapenak jasotzen ditu.
17. Jane Bennett, *Vibrant Matter: A Political Ecology of Things*, Duke University Press, Durham (Ipar Carolina), 2022.
18. Azaroak 4. Fonderia Battaglian egiteko modukoa iruditzen zaidan ideia bat otu zait azkenean. Paretaren barrutik komunikatzen diren pieza/zuloak. Interfono bat, bi aho, bi belarri. Horma tartekatuak eta agian soinudunak. Erakusketa bat egin nahi dut *Vieron su casa hacerse campo* (CA2M, 2022) erakustaldian arreta berenganatu baina bigarren maila batean geratu ziren esku-hartzeetako batzuk garatzeko. Espazioa hutsik izango du erakusketa horrek, zuloak besterik ez dira egongo, eta piezak paretan atzean egongo dira. Sakontasun handiago edo txikiagoko piezak arkitekturaren hutsuneetara eta tarteko guneeetara egokituta.
19. *Eva Hesse: Diaries*, Barry Rosen eta Tamara Bloomberg (ed.), Yale University Press eta Hauser and Wirth Publishers, 2020.
20. Jaime Cuencak *Bilbao* aldizkarian nire *entre alguien y algo* erakusketaren inguruan egindako erreseina.
21. Martin Herbert, *Tell them I Said No*, Stenberg Press, Berlin, 2016.
22. *Sistema consciente para técnica del movimiento* ikastaro trinkoa, Feli Estévez en eskutik.
23. Emanuele Coccia, *Metamorfosis. La fascinante continuidad de la vida*, Siruela, Madril, 2021.
24. Lucía C. Pino, *Crines*, Caniche Editorial, Bilbo, 2023.
25. Laura Mulvey, “Visual Pleasure and Narrative Cinema” (1975): “PLEASURE IN LOOKING/FASCINATION WITH THE HUMAN FORM. . . . There are circumstances in which looking itself is a source of pleasure, just as, in the reverse formation, there is pleasure in being looked at. Originally, in his *Three Essays on Sexuality*, Freud isolated scopophilia as one of the component instincts of sexuality which exist as drives quite independently of the erotogenic zones. At this point he associated scopophilia with taking other people as objects, subjecting them to a controlling and curious gaze.”
26. Luigi Pareyson, *Estética. Teoría de la formatividad* (1954), Ediciones Xorki, Madril, 2014, 106. Or.
27. Elfi Turpin komisario duen *L'Écorce* inauguratu dugu CRAC Alsacen.
28. *Excerpts from the 1971. Journal of Rosemary Mayer*, Marie Warsh (ed.), Soberscove Press, Chicago, 2020, 27. or.

JUNE CRESPO, HEDAPEN BASKULARRA

MANUEL CIRAUQUI

Hazi eta hazi egin diren loreak; edertasunari desafio egitearekin pozik ez, eta denboraren ekaitzei ere desafio egiten diete.

Julia Kristeva¹

Moldeen bidezko formen ekoizpena formen bidezko moldeen ekoizpena ere bada. Baina irudikapenaren, transferentzia mimetikoen eta isla fisikoen zirkuitua pitzatu egiten da, eta dagoena kanal gisa erabiltzen du ahal dena gauzatzeko, "naturala" denarekiko desbideratze, gainezkatzeko, urradura, haustura edo kutsaduren bidez. Bestalde, eredia, *datum* delakoa, moldea osatzen duen gauza hori, kasu batzuetan, xehetasun bakoitzean nahita formulatutako elementua izan daiteke, ideia edo keinu batetik abiatuta, buztinaren edo argizariaren antzeko materialen plastikotasunaren bidez. Baliabide mimetikoak aurkitu eta estalitako elementu bat izan daiteke; azken kasu horretan, adibidez, moldeetatik industrialki sortutako elementuak, hala nola maniki zati bat, takoidun zapata bat edo komun bat.

Zenbateraino izan daiteke ideia bat molde bat, edo molde bat ideia bat? Zirkuitu hori hautsi daitekeen lekuan bertan egin daiteke galdera. *Datuma*, iturri-objektua, bizirik edo hilik egon daiteke, txori bat, beso bat edo lore bat izan daiteke, eta kasu horretan beste galdera batzuk sortzen dira. Jatorriari buruzkoak — zein da gorputz baten bidez gauzaten eta suertatzen den kode genetiko baten eta molde baten arteko desberdintasuna?— edo gorputz baten batasun eta autonomiari buruzkoak —kolektibo bihurtzen al da hil ondoren hainbat eragilek deskonposatzen dutenean?— edo gorputz bat beste baten aurrean makurtzera daraman indar-jokoari buruzkoak. Bere itxura ingurunean modulatu duen gorputzaren mimesiaren aurrean, moldean biltzeak sumisioa dakar. Estaltzen, kopiatzen edo argazkiak ateratzen uzten dena, eta horrela, neurtzen eta errepikatzen uzten dena, gailuaren konplizea da edo haren aurrean atxikia izan daitekeen guztia eman du. Eta, hain zuzen ere, azken galdera hauxe da: zer geratzen da atzemate horren ostean, zer da oraindik eskuraezina; zerk egiten dio ihes, hilik edo bizirik, moldeari?

Bitarteko bat erabiliz forma bat transferitzeko orduan, ustekabeko edo eragindako aldaketek transferentzia-materialak bezainbeste bide dituzte. Posible dena materialaren bidez azaleratzen da, bereizezinak zaizkion zenbait ezaugarriekin. Ezaugarri horiek auto-antolaketa apetatsua edo prozesuaren osagai edo eragile baten aurrean kalibratu gabeko erreakzioak adierazten dituzte. Ustekabeko zimurtasuna, arrakala: "Akats tekniko baten ondorioz, pitxerrak zartatu edo lehertu egin ziren, estalkia barruan preso geratu zen... Geroago, gerta litezkeen istripuez gehiago jabetuta, erroretarte horrekin esperimendu dut"². Hortik aurrera, prozesua ezin da ulertu truke soil bat bezala, adibidez, argizariz kopiatutako objektu baten eskaiolazko edo zeramikazko moldean brontzea isurtzerakoan gertatzen dena, edo sukaldaritza-tutorialetako faseen sekuentzia gisa (moztu-salteatu-egosi) edo prozedura kanoniko gisa "egokitu bedi proportzio eta diseinu ederrarekin, maisuak egin nahi duen helburura ahalik eta gehien hurbilduz"³. Izan ere, ertzen elastikotasunak edo uholde-arriskuak, kaltebera izateak, laneko geruza osagarriek edo alde zurretik ematen diren geruzek ("ontzi-aldaketak eta lekualdaketak")⁴ biderkatu egiten dituzte ereduaren mundu orokorraren eta banako kontingentziaren mundu zehatzaren arteko trukeak: istripuek, aztarnek, bilgarriek, josturek, estalkiek, hesgailuek edo urradurek ereduaren gauzatze indibiduala definitzen dute, eta objektua berezi egitearekin batera dibergentearen edo gertaeraren lekuan jartzen dute. Ekologia da, beraz, genetika baino gehiago, eta bilakaera, trebetasuna baino gehiago. Horrela, forma bat izan litekeen zerbait agertzen da, baina soilik gorabehera horien multzoa ibilbide baten, kontingentzia baten hauskortasun kalkulazinenaren ikur gisa

eramateko baldintzapean, agian eskultura *bat* ez den baina argi eta garbi *eskulturaren* esparruan gertatzen den objektu horretatik haratago seinatzen duen bektorea.

Agerpen horren indar materialari esker, egiantzekotasunaren auzia bigarren maila batera igarotzen da. Existitzen denak moldearen modelo gisa balio badu —terminoak ia elkarren anagrama dira— erreala dena erreproduktzio-printzipio baten adierazpen gisa pentsatzeko joera dugu ezinbestean, aldakuntzen eraginpean dagoena, eta, beraz, kontrolaren eraginpean dagoena. Metafora biologikoek ekoizpenaren esparrua betetzen dute, metafora ekonomiko eta logistikoek bizitzaren eta bizi-ekoizpenaren esparrua betetzen duten bezala. Ahaztu egin dugu XVIII. mendera arte animalien, mineralen eta landareen esparruetako mugen mapa guztiz desberdina zela, eta bertan zenbait alor ez zirela existitzen. Biopolitikaz aritzeak biopoetikari buruz aritzera garamatza. Biopoetika horretan, bi esparruak gainjartzen dira, eta bultzada eta arau-programa komunek zeharkatzen dituzte etengabe; eta hausturek ere bai. Bizitzaren kudeaketa taxonomien kudeaketa da, eta eraldaketa biopolitikoak ez-obeditze lexikoekin edo ez-obeditze lexikoen bidez hasten dira. Eskulturaren dagoen emozioetako bat taxonomien suntsipenetik, espezieen eta generoen nahasketatik eta gauzak eta organismoak kardinalki antolatzen dituzten hierarkiak etetetik datorrela pentsa dezakegu. Ezagutzaren soziologian, *agnotologia* terminoa erabiltzen da ezjakintasuna sortzeko baldintzen azterketa definitzeko⁵. Ezjakintasuna dela gabeziaren ondorioz dela nahita (*by design*, gaur egungo sare sozialetan praktikatzan den ezjakintasunaren ingeniari bezala) gertatzen dela dioen ideia soziologikoari *agnosi* baten ideia eskultorikoa gehitu beharko genioke, molde batean bolumen bat hautsi edo lehertzen den bezalaxe gertatzen dena: nozio horrek dio ikerketa estetiko espazio baten barruan objektu bat erreproduzitzeak objektu horren alderdi atxikiezinarekin (berriro) topo egitea eragin dezakeela.

Ezinezkoa zait June Crespok egin berri dituen lanak prozesu *agnotologiko* batean ez kokatzea. Prozesu horrek ia ezagut daitekeena manipulatzan du, ezezaguna, izendatu ezin dena edo gidoiari jarraitzen dioten identifikazioei ihes egiten diena azaleratzeko. *Harriak / Saillkapenaren aurka (Piedras / Against Classification, 2013)* izeneko lan goiztiar batek hondo abstraktu baten gainean eskaneatutako elementu mineralen multzo bat aurkezten zuen. Neurri batean, zenbait landare eta loreren molde bizietatik eta 3D eskaneatzeetatik sortuak, June Cresporen pieza berri batzuk kanpatuta bezala bizi dira beren akats-tarteetan. Mutazioen, mihizatzeen eta eskala-aldaketan bidez, munduen arteko, lan horien arteko eta beste artista batzuen lanen arteko komunikazio-kanalak marrazten dituzte. Bultzada hori ez da soilik gorputz eskultoriko batek identifikatua izateko duen erresistentziak eragindako desplazamenduetan agertzen. Halaber, handitu egiten da izen eta zenbakirik gabeko elementuak dituzten sailetan [*Banoa, bai (Voy, sí, 2020)* lanaren hiru bertsoiak] edo izenburu bera duten lan bikoteetan [*No Osso (Occipital), 2021*] edo elementuen sistema pluraletatik (*Dividual, 2022; É para lá que eu vou, 2022*). Prozesu eskultorikoa ontologia jariakorra da, tolestean, bikoizketan eta etenean gauzatzen dena: serie bati berriro ekitean edo izena aldatzean; pieza baten zatia edo hondakina bolumen eta keinuen sekuentzia berri bat bilakatzean; hasiera batean bukatuta zegoen objektu baten zatiak mugitzean, edo atal berriak edo aposituak eranstean. Zenbait unetan denbora irauli egiten da eta obra bat bere iragan posibleetara adarkatzen da, atzerantz hazten da, haren nortasuna bitan banatzen da⁶.

2022–23ko titulurik gabeko pieza talde batek Louise Bourgeois-en *kumulua* (*cumuls*) ekartzen ditu gogora, bai eta John Ellis naturalistak 1767ko tratatuan ia modu deserosoan deskribatuko “Mendebaldeko Indietako animalia-lore multzokatuak”⁷. Era berean, moldekatze- eta galdaketa-prozesuak gainezka egitera bideratzen dira hasieratik, ondorengo akoplamenduak eta artikulazioak sortzeko poltsak balira bezala. Bourgeoisek ensanblajeari buruz esandakoak Cresporen lanaren dimentsio horretarako ekar daitezke: “ensanblajeak egitea ez da zizelkatzea. Ez da gauzen aurkako eraso. Gauzeekin bat etortzea da. Ensanblajearekin edo aurkitutako objektuarekin, xehetasun batek edo zure irudimena hunkitzen duen zerbaitek harrapatzen zaitu, egokitu egiten zara, amore ematen duzu, kentzen duzu eta elkartzen duzu. Baina ensanblajeetan badago beste zerbaite, errestaurazioa eta konponketa”⁸. *Konponketa* hori pitzadurak eta hausturak egonkortzeko lana besterik ez da; Cresporen hitzetan: “Formak hobeto ahokatzeko, objektua berdintzea eta horizontala marraztea”⁹. Horizontaltasuna

kontingentziaren lerro komuna da. Ensanblajeari beste prozedura batzuk lotzen zaizkio, hala nola hibridazioa eta txertaketa, ezkutuko elkartze-kateak hierarkiarik gabe hautsi, eraiki eta berreraikitzen dituztenak¹⁰. *Hedapen horizontala* (*Extensión horizontal*, 2017) lanak hainbat solairutan metatzen ditu burdinazko zilindro trinkoak, paper inprimatuzko blokeak eta zementuzko xaflak. Altuenak gora begira dagoen zulo biribil bat du. Egitura zementuzko hodi luze batek zeharkatzen du.

Gainjartzeek, desberdintasunek eta asimetriek eskulturaren bilakaera teknikoaren berri ematen dute. Gailu teknologiko edo instrumental handiak, artearen ondoko munduetan garatuak, artea kanulen eta elkarrizketarako edo kontrabandorako hodian bidez elikatzen dute, eta arteek, berriz, isilpean beste mundu batzuk beste kontrabando batzuekin elikatzen dituzten jakintzak isurtzen dituzte. Naturaletik moldekatzea, edo moldekatze bizia izenez ezagutzen den teknika (ing. *lifecasting*; fr. *moulage sur nature*), duela zenbait mendetik gaur egunera arte medikuntzako edo biologiako praktika anatomikoen eta eskultura-praktiken artean dagoen kapilaritate teknikoaren adibide ona da. Marieke M. A. Hendriksen-ek modu berritzailean aztertu ditu argizarizko molde naturalen historia eta XVII., XVIII. eta XIX. mendeetan azidoen bidez animalien eta gizakien gorputzeko sistema baskularren kopiak ekoiztearen historia (korrosio bidezko moldekatzea).

“Korrosio bidez egindako molde anatomikoen eta teknika artistikoen arteko antzekotasunak haien itxura atseginetik haratago doaz [...]. Egitura anatomikoen korrosio bidezko moldeak egiteko prestakuntza adibide goiztiarrek antzekotasun nabarmenak erakutsi dituzte bai gaur egun naturaletik egindako koralen moldeekin bai koralen imitazioekin ere. Adibidez, Govaert Bidloo-k (1649–1713) birika-adar baten eztainu soldatuzko molde bat egin zuen, eta Gerard de Lairese-k (1641–1711) horri buruz egindako grabatu batek ezinbestean dakarkigu gogora Wenzel Jamnitzer (1508–85) urregileak XVI. mendean egindako mahai gainerako zilarrezko apaingarri bateko oinarriko naturaletik modelatutako hostaila”¹¹.

Esanguratsua da koralen, hostoen eta barneko gorputz-organoen erreproduzioak antzera aurkezten zirela XVIII. mendeko bitxikerien kabineteeetan. Haien konbinazioekin, naturaren imitazioak eraikitzen ziren miniaturan, zientzia gogorarazteko aldare eta ikur gisa, hain zuzen ere, zientzia modernoak hautsi nahi zituen naturaren sekretuen kodeen imitazioak. Korala —orduan oraindik ere animalia, landare eta mineralaren arteko identitatea zuena— “aldi berean zen konnotazio klasiko mitologiko eta biblikoekin egindako produktu bat, pintoreentzako motibo bat eta material problematiko bat, naturaren sailkapenari, materiaren izaerari eta eraldaketa materialen posibilitateari buruzko galderak sortzen zituena”¹².

Loreak, bestalde, sexualki behatzen zituzten, eta eztabaida morala eta proiektio ideologikoa eragiten zituzten, mundu biziaren taxonomia normalizatzaile handiak formalizatzen ari ziren garaian.

Landareen eta animalien identitatearen arteko erabateko bereizketa sutsuki defendatu zuen Linneok, 1735ean bere *Systema natura*ren lehen bertsioa argitaratu zuenean. Ondoren, lan horrek hainbat liburuki eta milaka orrialde izan zituen, eta eragin handia izan zuen mende hartan. Lan horrekin, Linneo landareen behin betiko sailkapen sexualaren arduraduna izan zen¹³. Londa Schiebinger historialariak, bestalde —aipatutako *Agnology* liburuaren argitaratzailekide izan zenak—, ikerketa kritikoa egin zuen Linneoren lan arrakastatsua definitu zuten taxonomien sexualizazioari buruz. *Nature's Body. Gender in the Making of Modern Science* liburuaren lehen kapituluari, “The Private Lives of Plants”, Schiebinger-ek gogora ekartzen ditu “landare hermafroditak ama antinaturalek ‘irenduak’. Zuhaitzak eta zuhaixkak, ‘ezteisoinekoz’ jantziak. Loreak ‘eztei-ohé’ gisa zabaltzen dira senargai berdea eta emaztegai maitatua hartzeko”. Kategoria horiek guztiak Linneok eta haren dizipuluek landare-erreinuaren azterketetan erabili zituzten. “Linneok halako moldez asmatu zuen bere sistema; landare baten estamine kopuruak (atal arrak) landarearen klasea zehazten zuen, eta haren pistiloen kopuruak (atal emeak) haren ordena. [...] [Linneok] natura gizarte-harremanen arabera interpretatu zuen, eta ondorioz, botanikaren hizkuntza berrian esparru sozialeko oinarriko alderdiak txertatu zituen, mundu naturalekoak bezainbeste”. Linneoren sistemak bere horretan jarraitu du, nahiz eta planetako goi-mailako organismo konplexuak bakarrik ugaltzen diren modu sexualizatuan. “Ugalketa ez-sexualari asexuala esateak berak (sexurik eza

adierazten duen hemeretzigarren mendeko terminoa, nahiz eta *parthenogenesis* 1740ko hamarkadaz geroztik ezaguna izan) agerian uzten du ugalketa sexualari ematen zaion lehentasun normatiboa¹⁴. Ikuspegi bitar hori nagusitu egin da gaur egun arte, nahiz eta XVIII. mendean jada sailkapen hori kritikatzeko zuten pertsonak agertu, hala nola Priscilla Wakefield naturalista, feminista eta filantropo ingelesa. Berari zor diogu gutun gisa idatzitako botanikari buruzko tratatu garrantzitsu bat, gorputzaren analogiak erabiltzen dituen baina landareen sexualizazioa saihesten duena, nahiago baitu ugalketa komunikazio-prozesu gisa aurkeztu¹⁵.

“Organismoak sistema biotiko bihurtu dira, komunikaziorako gailuak, beste batzuk bezala” baieztatu du Donna Haraway-k *A Cyborg Manifesto* (Ziborg manifestua)¹⁶ lanean. Hortik abiatuta, Luciana Parisi filosofoak hurbiltasunen eta kutsaduren teoria bat lantzen du *Abstract Sex* (Sexu abstraktua) lanean, sexu-identitatearen eta ugalketa-sexualitatearen arteko lotura hausten duena eta taxonomiaren historia generoaren biopolitikarekin lotzen duena. Parisik zera salatzen du:

“alde aurretik ezarritako aukera multzo batek gorputz bat zer den eta zer egin dezakeen determinatzen duen gorputzaren kontzeptu espezifikoa. Aukera hauek forma biologikoen (espeziea, sexua, larrukolorea eta tamaina) eta funtzioen (ugalketa sexuala, garapen organikoa eta heriotza organikoa) arteko analogiaz definitzen dira, eta natura eta materia identitate-printzipioen bidez nola ulertzen ditugun zehazten dute (finkotasuna eta egonkortasuna). Analogia horrek antzekotasun zuzena sortzen du gorputzaren eta gogoaren artean, sexuaren eta generoaren artean, azalaren eta arrazaren artean, non patu biologikoak determinatzen baitu gizarte-kategorien antolaketa hierarkikoa. Feministek eta ziberfeministek gogor kritikatu dute berdintasun biologiko hori; izan ere, irudikapen-eredu patriarkala horretan oinarritzen da, non buruak gorputza menderatzen baitu”¹⁷.

Parisiren azterlanaren helburuetako bat ugalketa biologikoa eta sexua bereiztea da, bioteknologiak mundu industrializatuan izan dituen eraldaketen argitan. Horrek “desio femeninoa patu biologikotik” bereiztea dakar, eta “gorputzaren kontzeptu erabat ezberdina eskatzen du”¹⁸. “Gorputz batek ahal duenaren eta ezin duenaren” aukeren sorta estuki lotuta dago mundu objektiboaren markaketa taxonomikoarekin: domeinuak, erresumak, filoak, klaseak, ordenak, familiak, generoak eta espezieak bereiztearekin eta diagramatzearekin. “Espezieek —azalduko du Donna Harawayk— ahaide eta berdinkideen arteko dantza dute oinarri. Ugaltzeko gaitasuna espezie biologiko bereko kideentzako oinarritzko betebeharra da; albo-geneen trukatzaila horiek guztiek —hala nola bakterioek— ez dute inoiz oso espezie onik sortu. Gainera, bioteknologiaren bidezko gene-transferentziak ahaide eta berdinkideen eredu berregiten du Lurrean aurrekaririk gabeko indize eta moduetan”¹⁹.

Mendetasunaren hari nagusiak mendeko espezie eta generoak lotzen ditu (entitate esplotatuak, kolonizatuak, esklabo bihurtuak, herritartasunik edo eragiteko gaitasunik gabeak), Harawayren ustez, naturaren diskurtso humanistapean. Esparru horretan kategorizatzen da emakumearen ugalketa-rola. “Ugalkorra, gizonaren eremu distiratsutik kanpo dago, haren *hodia* izan arren”²⁰. Eskema honetan emakumearen gorputzak jokatzen duen hodi-rola, kanularena, bideek esentziarekiko duten izaera subsidiarioari lotuta dago, eta esentzia izakiaren edozein bihurtutara iristeak errealitate antolatua molde errepikakor eta egonkorra taxutzen eta eguneratzen du. Kanulen rol subsidiarioaren aurrean, kritika feministaren hedapen historikoak paradigma ez-zurrun bat azaleratu du, Luce Irigarayren “Volume-Fluidity” testuan erreferenteetako bat duena. “Emakumeak bere burua ukitzen duenean [...] osotasun batek bere burua ukitzen du in-finitua delako, ez daukalako ez ezagutzarik ez ahalmenik infinituaren hedaduran behin betiko ixteko edo handitzeko. [...] Metamorfosia gertatzen da, non ez dagoen multzo oso bat, non ez den Bataren teoriarik ezartzen. Transmutazioak gertatzen dira, beti ustekabeak, ez baitute inolako *thelos*-era iristeko konspiratzen”²¹. Portaera ez-zurrun hori definitzen dutenak ez dira hainbeste “haren forma eta funtzio bukatuak (identitatea), baizik eta konposizio- eta eraldaketa-prozesuak, edozein forma hartzeko gai diren fluidoek metamorfosia erakusten dutenak”. Metatze-, karga eta deskargatze-prozesuen mende dagoen gorputzari kontrajarrita, gorputza etengabeko fluxuen, isuraldatzeen eta ihes adierazgarrien eszenatoki delako ideia agertzen da²².

Eskulturaren arloa gogoeta-gune bat dela pentsa dezakegu: bai bizidunen patu anitzetarako sexuaren eta desioaren mutazio bio-teknologikoei buruz gogoeta egiteko gunea, bai haien erreproduzigarritasunari, ugaritze-dinamikei, bikoizketari eta modelatuari buruz gogoeta egiteko gunea. Gutxienez, espazio honetan, June Crespok bizidun izan daitezkeen bolumenekin edota bizitasunaren, patuaren, afektu existentzialaren eta nagusitasunaren seinaleen eramaile izan daitezkeen bolumenekin egiten dituen translazio, transdukzio, alterazio eta ensanblaje garrantzitsuetako batzuk irakur ditzakegu. *Après nature* lanak ez du ezkututzen artifizialtasuna, ezta izaera industrializatua ere, eta haren poroak iturriak dira²³. 2016an, Crespok pieza multzo bat aurkeztu zuen Vigoko Arte Garaikideko Museoa, *Kanala* izenburu esanguratsuarekin. Bigarren eskuko zeramikazko hodi zaharretan oinarrituta egin zuen ikerketa, eta, ondoren, “buztinezko pieza hutsak eta zilindrikoak ekoitzi, organo eta gorputz zatien adierazpen minimoak izan litezkeenak, eta, aldi berean, formalki zeramikazko kanalizazio *mihiztatu* zaharrak gogorarazten dituztenak”²⁴. Hutsuneen norabide-izaerak eta hodian funtzionaltasun esekiak ensanblaje-dinamika bat jartzen dute abian, eta horretan “zementuak, ehunak, zeramikak eta erretxina eta antzeko materialen nahaspilak” esku hartzen dute. Kanala ardatz bihurtzen da, metagailu; hustasuna, gorputz magnetiko.

Kanaletan zehar, bolumena ibili eta jariatu egiten da. Erle-argizaria funtsezko materiala da, ez bakarrik ekoizpen/erreprodukzio eskultorikoaren prozesuaren historia ulertzeko, baizik eta baita emakume eskultore askoren rola ulertzeko ere, jatorritik bertatik diluitzen edo urtzen zituen historiaren baitan. Priscilla Wakefield ez zen aitzindari feminista kuakero bat bakarrik izan, emakumeen artean botanikaren azterketa eta praktika bultzatu zituen; izan ere, era berean, *Reflections on the Present Condition of the Female Sex* (1798) lanean, emakumeak estatua-eskulturen ekoizpenean eta modelatze-lanetan nabarmendu zitezkeela adierazi zuen²⁵. Marjan Sterckx-ek adierazi bezala, argizarizko edo buztinezko lanak maila artistiko *txikikoak* zirela uste zenez, bide horretan aurrera egiteko aukera ematen zien emakumeei; ondoren argazkilaritzak egin zuen bezala. Argizariz modelatzea eta argazkilaritza antzeko teknikatzat har daitezke, atzemandako objektuen erreprodukzioan duten fideltasunagatik. Argizarizko moldeak argazkien aurreko teknika edo teknika protofotografiko gisa uler daiteke, beraz²⁶. Elizabeth Berkeley (1750–1828), Maria Denman (1776–1861) eta Sybella Bullock (d.g.) eskultoreen ibilbideak aldarrikatzen ditu Sterckxek. Izan ere, Society of Arts erakundeak kondekoratu zituen 1806, 1807 eta 1825ean, hurrenez hurren. Patience Wright-ek (1725–1786), aldiz, bere lanak New Yorken erakutsi zituen 1771n, bere estudioa Londresera eraman aurretik, non haren lanak suak suntsitu baitzituen. Gaur egun “amerikar eskulturaren ama fundatzaile” izenez ezagutzen da²⁷.

June Crespok bere eskultura-jardunaren eta artista historiko eta garaikideen arteko elkarrizketa aldarrikatu du, bere jardunbidearen barruko kanalen bitartez. Cresporen obraren garapen tubularrek eta elementu baskularren ugaritzeak norabide askotara jotzen dute. Charlotte Posenenske-ren *Hodi karratuak* (*Square Tubes*) saila eta Elsa von Freytag-Loringhoven-en *Jainkoa* (*God*, 1917) lana datozkigu burura, “egurrezko inglete-kutxa baten gainean alderantziz jarritako hustubide pieza bat”²⁸. Alderantziz horrek fluxuen norabide-aldaketa adieraz lezake, ordena bertikalaren etena, baina baita hondakinaren igoera mistikoa edo zorrotenean barruan gertatzen denaren abstrakzioa ere. Horrez gain, iturgintzako tramankulua ezin deszifratuzko zirkulazio-totem bihurtzea ere adieraz lezake. Era berean, 1972ko maiatzaren 21ean jasandako erasoaren ondoren Michelangelo Buonarrotiren *Pietà* berreraikitze prozesua aipatu behar da. Prozesu horretan, Vatikanoko Museoetako zaharberritzaileek obraren zati kaltetuak berregitea lortu zuten, molderik delikatuenetan poliester erretxinaren eta Carrarako marmol hautsaren nahasketa likidoa injektatuz²⁹.

Cresporen prozesuan, kanalizazioetatik lortutako ereduak ez dira soilik modu etenean hedatzen [terrakotazko hodi txikiak *Chance Album n.º 1*, 2016, lanean; zilindro tartekatua *Hedapen horizontala* (*Extensión horizontal*, 2017) piezaren erdian; aipatutako *Kanala* erakusketako lanak, Vigon], baizik eta gai dira mimetikoki mutatzeko materia gehiagoren bidez, edo sekuentziatzeko brontzezko zurtoin, ehunezko zango, zementuzko makil edo negatiboan modelatutako bidoietan. Zurtoinak eta hostoak metalen bidez

beste eskala batean transduzitzen gero, elementu horiek zoruko, hormako eta espazio irekiko posizioetara eramaten dira. Hor, keinu biziak eta delikatuak egiten dituzte aldi berean, zingilak eta tenkatzaileak eta zetazkoak edo muselinazkoak izan daitezkeen beloak erabiliz. Hemen, denboran hain urrun eta sentiberatasunean hain hurbil dauden eraginak agertzen dira, hala nola Rosemarie Mayer-en lanen eragina [hortik hartzen du Crespok *Beloak (Veils, 1969–73)* sailaren izenburua], Ángel Bados-en horma gaineko enanblajeen eragina (pertsonek garrantzitsua izan zen Cresporen formazio artistikoan), non lurzorua bere antolaketa-ndarrak ardatz perpendikularraren esku uzten dituen, edo Lorea Alfaro artistak Bilboko zenbait toki espezifikotan egindako *Paretara Bi (2014–15)* lanaren eragina, non eskaneatu eta horma-irudi bihurtutako jantziak eta ehunak agertzen baitziren³⁰. Ehunen hedapenak barnekotasun- eta kanpokotasun-jokoak errazten ditu (edo, nahi izanez gero, intimitate- eta *extimite*-jokoak), eta zerikusia du bai abstraktuarekin, bai esplizitu eta gordinarekin. Ehuneko beloak eta bilgarriak, larru urratuak, petaloak eta oso film finak bailiran, sareetan edo krisalidetan harrapatutako gorputzak gogorarazten dituzte, baita industria-jatorriko eskeletoak ere, soltean erositako txatalak edo bigarren eskuko arropak soinean dituztela. Barrualdearen eta kanpoaldearen artean trenkadarik ez badago, apaindurarik ere ez³¹. Bide batez, pieza horiek beren ardatz eta euskarriak zalantzan jartzen dituzte (*Axes, 2018; VSCHC, 2023*) eta norabide paradoxikoetan proiektatzen dira, yoga kuruntako posizioetan murgildutako gorputz gisa³².

Aldi berean, loreen eta landareen eskaneatzeak *lifecasting*aren bertsio digitala gogorarazten du, eskultura bizitza-ekoizpenaren eremu teknifikatura hurbiltzen duena, eta, bereziki, landare-merkantzia bizi eta/edo freskoetara: etxean kontsumitzeko loreak eta barazkiak tamaina handiko instalazioetan ekoizten dira, instalazio horietan identifikazio-tresnak, baheketak eta jarraipenak egiteko robotak, genetikoki diseinatutako organismoen kontrol kimikorako gailuak eta abar daudela. Jara Rocha-k eta Femke Snelting-ek ekarpen erabakigarria egin dute gailu biopolitiko horiei buruzko gogoetan, “So-Called Plants” saiakeraren bidez. Saiakera horren ardatz dira landareen “harrapaketa-paradigma” digitala, “landare-topologiaren” politika eta “3D optikako eta eskaneatzeko eragiketen azpian dauden axiomak [...] errealitatek haratagoko gauzatze baterantz hedatuak [...]”. ‘Landareak’ konputagarriak, zenbakitzaileak, izendagarriak, zehatzak eta diskretuak bihurtzen dira mimesiaren promesari amore eman gabe. [...] Behatokitik almanakak edo museoetan taxonomiak erabiltzen diren bezala, inbentarioek ere eginkizun bat betetzen dute herbario konputazionalen bilakaeran, ezagutza, kapitala eta ordena ekoizteko tresna garaikide gisa³³.

Problematika hori eskulturan landare-gorputzetatik lortutako artxibo digitalen erabileran sortzen da, batez ere modelatze-prozedura tradizionalen eta garaikideen artean ezadostasun-joko bat abian jartzen denean.

Eskultura-prozesuak landare-zati birreskalatu bat 3Dn inprimatzetik galdatzera eta testura sintetikoko trazetara garamatza, bukaerako brontzean oraindik ikus daitezkeenak. 3Dn inprimatutako zenbait landare inprimaketa bolumetrikotik abiatuta molde bihurtuak badaitezke, kontrakoa ere gerta liteke. Kasu batzuetan, moztu berri diren loreak argizariz estaltzen dira, erre eta galdatze-metalaren kanal gisa funtzionatzeko³⁴. Hor ulertzen dugu argizarizko hodi trinkoen funtsezko anbiguotasuna, tradizioz *isurbide* deiturikoak, argizari galduzko galdaketan urtutako argizaria eskulturatik kanpo drainatzeko balio dutenak. Duela gutxi lan txikiei dagokienez, Crespok aipatua zuen etengabe zituela zalantzak amaitutako piezen isurbideak kentzeko orduan³⁵. Bere azken ekoizpenetan (*VSCHC* saila eta Guggenheim Bilbao Museorako propio sortutako obrak), eskulturen profiletatik irteten diren kanula horien jokoak esplizituak da. Batzuetan moztu egiten ditu eta horien orbainak ikus ditzakegu, metalaren gainean orezta distiratsua bailiran. Ebaki horiek disko-zerra batekin egin ohi ditu eta batzuetan, ganibet gori batek marraztutako lerroak edo ebakidurak aurkitzen ditugu, obraren alde batean zuzenketak egiterakoan sortutakoak. Prozesu horretan tanta handiak isurtzen dira eta gorputz nagusiaren gainazalean edo inguruan geratzen dira. Eroritako tanta horiek, apurrak bezala solidotuak, buru txikiak edo mikroeskultura zelularrak dirudite. Soberan dagoen metala bezala, prozesu honetatik igaro den argizaria birziklatu egiten da eta beste eskultura batzuetan erabiltzen da berriro. Bolumena-jariakortasuna. Batzuetan, gainazal galdatuan

zeramika-hondarrak ageri dira, piezan harrapatuta geratu diren molde puskak, bereganatutakoak. Artistak bertan uztea erabaki du, baita zenbait pitzadura eta soldadura ere, nolabaiteko akats-tarte bat dagoela adierazten dutenak.

Eskultura prozesu sinpatetikoa da, eta Cresporen praktikan prozesu horrek garapen horizontalak eta adarkadura eta kutsadura etenak bilatzen ditu³⁶. Zurtoinek, gorputz kanalek, landarea inbolukru mineralera daramate, ustekabeko konposatura, zorura eta lurrik gabeko euskarrira. Batzuetan, piezek gorantz egiten dute, zutabeak edo espatak bezala (*Dividual* eta *SH*, 2016), edo diagonaliki; horrek ez du eragozten haien hedapena baskularra, luzetarakoa, ez-lineala izatea. Forma horietan, landarearen, animalia-aren eta mineralaren arteko antzinako anbiguotasuna berragertzen da. Azken aldiaren Crespok erre, moldekatu edo galdatutako loreen artean *anthuriumak*, iris mota batzuk, liliak, nartzisoak, *freesiak* eta *strelitziak* aurkitzen ditugu³⁷. Azken landare hori *paradisuko hegazti* izenez ere ezagutzen da, eta beste lore askok bezala, zoofitoen edo landareak diruditen animalien mundu arkaiko eta ia mitikoa ekartzen du gogora, duela ia bi mendera arte naturazaleen artean mintzagai izan zen mundua; bitarteko mundu horretan eskultura-ekoizpenak ez du lan egiten jarraitzeko oztoporik, bereziki haren iterazioak disidentzia lexikoak eta —moldeak hautsiz gero— ugaltzaileak direnean.

Bere ekoizpen-egunkarian, June Crespok “duela hainbat urte [egindako] molde baten barruko ikuspegia” ekartzen du gogora. “Orduko hartan, maniki baten hanken eta aldaken arteko espazio hutsak espazio arkitektonikoa zirudien”³⁸. Arkitekturaren, fisikaren edo anatomia forentsearen lengoaiak objektu eskultoriko bat deskribatzeko erabiltzen badira ere, ez da hain ohikoa botanikak lore espezie bakoitza deskribatzeko erabiltzen duen hiztegi espezifikoa erabiltzea. Lengoaiei talkak eta kutsadurak objektu edo gailu eskultoriko baten zatiei aukera ematen die komunikatzeko, gorputzeko atalek amets batean egiten duten bezala. Lygia Clark-ek bere gutun batean Hélio Oiticica-ri helarazi zion ikuspegi fantasmatikoa “Horoskopoa irakurtzen duen bular batek besteari esaten dio: ‘Bikiak gara minbizi batek banandu arte’. Sudurra esaten dio ahoari: ‘Igo, igo niregana, zomorrotxo; posizio honetan ezin da’ [...] Botila batek esaten dio gorputzari: ‘Hustu nazazu, beteta nago’. Belaunak esaten dio geometriari: ‘Belaunikatzea angelu zuzenaren aurkikuntza da’”³⁹. Clarkek bere gutunean “*nostalgia do corpo*”⁴⁰ aipatzen du, ez gorputza galdu aurreko malenkonia gisa, baizik eta zatiketa eta irrika gisa, “gorputz kolektibo” gisa berreraikitzea daraman irrika gisa. Era berean, June Cresporen lanak sutegian elkartzean, formen baitako gorputzaren bilaketa pentsarazten du, estasi horizontal moduko batera iristeko elkar bilatze eta mihizatze bat. Artistak bere ekoizpen-egunkarian idatzitako ametsak *strelitzia* batekin izandako “akoplamendua” kontatzen du. Kopula horren gertaera harrigarria ere ensanblaje bizi bat da, hau da, txertatze bat⁴¹.

Landare-munduaren ezaugarria hedapen baskularrak dira, baina bere baitan ditu animalien dinamikak, tentsio tektonikoak, ugalketa mineralak, zatien arteko erromantzeak eta organologia hibridoak ere. Erreinu begetala da bateratu gabeko hurbiltasunen, zoramen isil eta horizontalaren, hodien arteko harreman aberranteen erreinua, Deleuze-n arabera: sexuaren erreinua⁴². Priscilla Wakefield-en epistoletan *folie des fleurs*-en beste bertsio bat dago. Felicia protagonistak landare baten oreka (“lurrean tinko zutik jarria”) deskribatzen dio ahizpari, oreka hori sustraiei esker duela esanez (“burua orekatzeko balio du”). Sustraiak lurzoruko mantenugai-zukuak xurgatzen dituzte “ezin konta ahala aho balira bezala”. “Sustraiak ere guraso-lana betetzen du, bere baitan enbrioi-landareak mantentzen baititu neguaren zorrotasunean, erraboil moduan, berez kimu, begi edo ernamuin handiak direnak, barnean etorkizuneko landareak dituztela”. Enborra, berriz, sistema arterial gisa deskribatzen da, azal batez estalia —larruazala balitz bezala—, eta hezurra bezain solidoa⁴³. Ezinbestean datorkigu gogora Virginia Woolfek zuhaitz baten eta emakume baten gorputzaren arteko hurbiltasuna edo identifikazio anbigua gogorarazten duen pasarte⁴⁴.

Siberian, eskultura tradizionalerako forma batzuek ehungintza eta argizaria erabiltzen zituzten plakak, medailoiak eta erritu-urregintzako beste objektu batzuk galdatzeko⁴⁵. Pieza horietako animalia-motiboak “metamorfosi zoomorfiko” gisa deskribatu ohi dira; izan ere, piztia jakin batzuen zatiak animalia balira

bezala irudikatzen zituzten, edo haietatik beste espezie batzuk haziko balira bezala (zati autonomoak, hankak edo adarrak landare-aldaxkak bailiran; edo animalia batetik besterako txertoak, atzaparrak txoriak bailiran, adarrak sugeak bailiran). Eszitiar-siberiar kulturaren emakumezko jainkoari Animalien Anderea esaten zaio⁴⁶. Nastassja Martin etnologoak, Siberiako Kamtxatka penintsulako estepetan lanean ziharduela, eten egin behar izan zituen bere ikerketak, hartz baten eraso basatia jasan baitzuen. Hartzak desitxuratu egin zuen, eta erasotik bizirik atera ondoren, aurpegia berreraikitze prozesuan, eraso traumatiko haren ondorioz ospitalean emandako denboran bere aurpegia molde kaltetu bat bezala geratu zenez, Martinek ere, bere modura, *nostalgia do corpo* batez dihardu. “Gau horretan, idatzi nuen basa-piztiengan sinetsi behar dela, haien isiluneetan, haien euste gaitasunean; [...] sinetsi behar dela gorputzak eta arimak ez-leku batean erretiratzea lantzen dutela, eta ez-leku horrek beretzat duela bere neutraltasuna eta axolagabetasuna, zeharkakotasuna. Itxuragabea zehaztu egiten da, marraztu egiten da, lasaitasunez birdefinitzen da, basatiki. Des-inerbatu ber-inerbatu nahastu fusionatu txertatu”⁴⁷. Animaltasunaren ordenan birkonfiguratzeko aukera baten irekiera gisa agertzen da landarediaren biopoetika. Txertatu, mihiztatu, ber-inerbatu: eskultura-prozedurak, landareen eta animalien *pathosen* formak berriro komunikatzen dituzten kontzeptuak, eta forma horiek modu arrisksuki ohikoan zeharkatzen dituzten teknikak.

[Itzulpena: Bakun;
Egokitzapena: Guggenheim Bilbao Museoa]

Oharrak

1. Julia Kristeva, “Louise Bourgeois: From ‘Little Pea’ to Runaway Girl”, hemen: *Louise Bourgeois* [erak. kat.], Frances Morris (ed.) Tate Publishing, Londres, 2017, 251. or.
2. June Crespo Susana González-ek elkarrizketatua, hemen: *Helmets*, Fundación María José Jové, A Coruña, 2020, 83. or.
3. Benvenuto Cellini, *I trattati dell’oreficeria e della scultura di Benvenuto Cellini (1565–67)*, Felice Le Monier, Florentzia, 1857, 164. or.
4. June Crespo, hemen: *Helmets*, *op. cit.*
5. Robert Proctor, “Agnotology. A Missing Term to Describe the Cultural Production of Ignorance (and Its Study)”, hemen: *Agnotology: The Making and Unmaking of Ignorance*, Robert N. Proctor eta Londa Schiebinger (ed.) Stanford University Press, 2008, 1–36. or.
6. Proiektu hau prestatzeko elkarrizketei esker ulertu ahal izan dugu June Cresporentzat zer garrantzi duen aurreko bi urteetako lan bati berriro ekiteko aukerak, edo amaitutakoaren bertsio dibergentea egiteak, edo hasiera batean material batekin formulatutako pieza bat beste material batekin esploratzeak.
7. Susannah Gibson-ek aipatua hemen: *Animal, Vegetable, Mineral. How eighteenth century science disrupted the natural order*, Oxford University Press, 2015.
8. *Louise Bourgeois* [erak. kat.], *op. cit.*, 261. or.
9. June Crespo, hemen: *Helmets*, *op. cit.*, 71. or.
10. June Crespo, “Egunkari baskularra”, liburuki honetako 156. or.
11. Marieke M.A. Hendriksen, “Casting life, casting death: connections between early modern anatomical corrosive preparations and artistic materials and techniques” (Bizitza moldekatzea, heriotza moldekatzea: prestakin korrosibo anatomiko goiztiarren eta material eta teknika artistikoen arteko loturak), hemen: *Notes and Records: the Royal Society Journal of the History of Science*, 73. lib., 3. zk., 6–7. or. Silvana Fiorese-ri eskerrak eman nahi dizkiot, eskultura eta anatomiaren arteko gurutzatze hauen berri emateagatik.
12. *Ibid.*, 23. or.
13. Gibson, *op. cit.*, 81. or. Liburu horretako hirugarren kapitulua Linneoren obrako landareen munduaren eraikuntzari eskainia da oso-osorik.
14. Londa Schiebinger, *Nature’s Body: Gender in the Making of Modern Science*, Rutgers University Press, 2004, 11–17. eta 22. or.
15. *Ibid.*, 36. or.
16. Donna J. Haraway, “A Cyborg Manifesto: Science, Technology, and Socialist-Feminism in the Late Twentieth Century”, hemen: *Simians, Cyborgs and Women: The Reinvention of Nature*. Routledge, New York, 1991.

17. Luciana Parisi, *Abstract Sex: Philosophy, Biotechnology and the Mutations of Desire*, Continuum, 2004, 8–9. or.
18. *Ibid.*, 10. or.
19. Donna Haraway, *When Species Meet, Posthumanities*, 3. lib., University of Minnesota Press, 2007, 17–18. or.
Hemen aipatua: *On the Necessity of Gardening. An ABC of Art, Botany and Cultivation*, Laurie Cluitmans (ed.),
Centraal Museum, Utrecht, 2021, 172. or.
20. *Ibid.*, 18. or. [egilearen enfasia]
21. Luce Irigaray, “Volume-Fluidity”, hemen: *Speculum of the Other Woman*, Cornell University Press, 1974, 233.
or. [egilearen enfasia].
22. Parisi, *op. cit.*, 33. or.
23. “D’ailleurs la nature en France c’est encore vous-même: industrialisée, commercialisée; des jardins, des pâtis,
des labours, des fabriques de bois. Pourtant, la liberté et le vent et les oiseaux y gambadent, y dansent à l’aise ; La
liberté par tous les pores (robinets) en jaillit” [“Bestalde, natura Frantzian zu zeu zara berriro: industrializatua,
komertzializatua; lorategiak, larreak, ereintzak, egur fabrikak. Hala ere, askatasuna eta haizea eta txoriak jauzika,
dantzan ari dira han, gustura; Askatasuna poro (txorrota) guztietatik isurtzen da”]. Francis Ponge, “Début du
poème d’avant-printemps”, hemen: *Nioques de l’avantprintemps*, Gallimard, Paris, 1983, 30–31. or.
24. June Crespo Ángel Calvo Ulloarekin hizketan, 2016 [artistaren artxibategia].
25. Marjan Sterckx, “Pride and Prejudice: Eighteenth-century Women Sculptors and their Material Practices”,
hemen: *Women and Material Culture, 1660–1830*, Batchelor eta Kaplan (ed.), Palgrave Macmillan, Londres, 2007,
92. or.
26. *Ibid.*, 93. or.
27. *Ibid.*, 87–88. eta 95. or.
28. June Crespo, hemen: *Helmets, op. cit.*, 52. or.
29. Jatorrizkoa aurreko hamarkadetan egindako kopietan oinarrituta berreraiki zen. Crespok, 2023ko irailean
egilearekin egindako posta-truke pertsonalean aipatzen du erreferentzia hori.
30. Zehazki, Carreras-Mugica galerian eta Bulegoa z/b espazioan.
31. Femke de Vries, “Ornamenting the Inner – Instead of the Outer Self”, hemen: *Fashioning Value – Undressing
Ornament. A Critical Study of Fashion as a System of Value Production through the Paradigmatic Changes of
Ornament*, Onomatopee, 2015, 35–49. or.
32. *Yoga Kurunta (puppet yoga edo txotxongiloen yoga)* esekidura-soken laguntzaz egiten den *asana* multzoa da;
oro har, soka horiek horma-kakoetan edo horma-barretan lotzen dira. Praktika horiek, antzinatan lianak eta
zuhaitzak erabiliz egiten baziren ere gorputzak airean esekitzeko eta luzatzeko, tresna modernoekin (horma-
barrak, zingilak eta sokak) egiteko berreskuratu zituen B. K. S. Iyengar-ek XX. mendearen bigarren erdian.
33. Jara Rocha eta Femke Snelting, “So-Called Plants”, hemen: *Plants by Numbers*, Prophet eta Pritchard (ed.),
Bloomsbury, Londres, 2023, 241., 244. eta 250. or.
34. “Había flores abrasadas, dril / sobre la máquina que llora” (Lore kiskaliak zeuden, dril / negar egiten duen
makinaren gainean). Antonio Gamoneda, *Arden las pérdidas*, hemen: *Esta luz. Poesía reunida*. Galaxia Gutenberg,
Bartzelona, 2019, 447. or.
35. June Crespo, hemen: *Helmets, op. cit.*, 83. or.
36. Beste era batera esanda, pieza eskultorikoaren fluxu afektiboa edo *pathos*-a deszentralizatu egiten da, obra
identifikaziotik aldentuz. Eskulturaren zatiek, mailek eta atalek elkarri eragiten diote eta elkar tenkatzen dute.
Pieza bakoitzak lasaitasunari uko egiten diola dirudi, jarrera zentrifugoa lagun.
37. Streliziak “lore zuriak eta urdin argiak sortzen ditu, moko-formakoak, gila formako braktea purpura ilunak
dituztenak”. *Encyclopedia of Plants & Flowers*, Christopher Brickell (ed.), American Horticultural Society, Dorling
Kindersley, New York, 2012, 704. or.. “Infloreszentzia hostoen artean sortzen da; barkillo itxurako purpura koloreko
espata horizontal bat da” (Wikipediako “Strelizia” sarreratik itzulia; azken aldaketa: azaroak 5, 2023.
<https://es.wikipedia.org/wiki/Strelitzia>).
38. June Crespo, “Egunkari baskularra”, liburuki honetako 156. or.
39. Clark-ek Oiticica-ri bidalitako gutuna, hemen: Lygia Clark eta Hélio Oiticica, *Fantasmática del cuerpo. Cartas
1964–1974*, Caja Negra Editora, Buenos Aires, 2023, 210–12. or.
40. Hori izango da Clarke egindako sail baten izenburua ere, eskultura bigunez eta partehartzeko objektu
sentsorialez osatutakoa. Yve-Alain Bois-ek 1966an izenburu horrekin egindako pieza iragankor baten testigantza
ematen du. Ikus Lygia Clark, “Nostalgia of the Body”, hemen: *October*, 69. zk., 1994, 89–109. or.
41. June Crespo, “Egunkari baskularra”, liburuki honetako 156. or.
42. Gilles Deleuze, *Proust et les signes* (1964), Presses Universitaires de France, Paris, 2014, 210–11. or.
43. Priscilla Wakefield, *An Introduction to Botany* (1796), Cambridge University Press, 2015, 4–6. or. (Letter II).
44. “Ez nekien ziur zuhaitz bat zen ala oinez zihon emakume bat”. (Gaztelerazko ediziotik euskarara itzulia).
Virginia Woolf-en *A Room of One’s Own* (1929) liburuko pasarte hori

Roberta Ann Quance-k aipatzen du lan honetan: *Mujer o árbol. Mitología y modernidad en el arte y la literatura de nuestro tiempo*. La balsa de la Medusa, Madril, 2000, 121. or.

45. Emma C. Bunker, "A Variation of the 'Lost Wax' Process", hemen: *Expedition Magazine*, 12. lib., 3. zk., 1970. Hemen kontsultagai: <https://www.penn.museum/documents/publications/expedition/12-3/Bunker.pdf>.

46. Askold Ivantchik, "Scythians", *online* argitaratua, Encyclopaedia Iranica eta Brill Publishers, New York, 2018.

47. Nastassja Martin, *Croire aux fauves*, Gallimard, Paris, 2019, 76. or.

3D, 2D, 1D: GERTATU BEHAR IZANGO ZATEKEENA

JARA ROCHA

Izaki fotosintetikoek komunitateek, edozein industria-instalazio baino ahaltuago izanik, elementuak berrantolatzen dituzte planeta mailan.

Natasha Myers¹

Konputazio iheskariarekin ditudan konpromisoak zorretan daude desordena natural honen ulermenarekin, etorkizuna ziurtatzeko orain hartutako ekintza iheskarien bidezko biraketa honekin. Prekarietatearen paralisia gaindituta, mundu berri bat prestatzen iraugipenaren aurrean.

Romi Ron Morrison²

June Cresporen lanean, absentziaz osatutako konposizio batek posible denaren bizipen zabaldua aktibatzen du: "Absente baina irudikatuta dagoen etorkizun baten bitartez orainaldian jarduteko deialdiak dira, kontuan izanda etorkizun horrek, dei horren kariaz, orainean eragiteko gaitasuna duela"³; *absentzia eratzailleak* dira, konposizio-eragiketa batean orainaldi konplexuaren eta haren etorkizun erlatiboaren latentzia eta are potentzia gisa hautematen direnak. Hau da, Crespok maniobra teknokulturalen multzo bati erreparatzera garamatza; eutsiko gintuzkeenaren materialak eta semiotikak beste modu batean aurkezten dituzten maniobrak. Eta galeren bidez landu ditu batez ere.

Eduardo Kohn-ek absentzia eratzailleak planteatzen dituenean, ingelesez *geroaldiko baldintza erreal* gisa jokutzen den aditz-forma gogorarazten dit; Tina Campt-ek⁴ adierazitako kontzeptua da, gero Romi Ron Morrison-ek mugiarazi zuena pentsamendu konputazional beltzaz hitz egitean: *gertatu behar izango zatekeena* (*that which should have had to happen*), "oraindik gertatu ez den baina gertatu behar duen etorkizun baten performance-a [...]. Gaur egungo gertakarietatik haratago irudikatze ahalmena da, eta ez dena, baina izan behar duena, bistartzeko ahalmena"⁵. Cresporen erakusketaren irakurketa hortik egin daiteke agian: gertatu behar izango zatekeenaren ebidentziak. Amaitzen ari den mundu baten fikzio politikoaren gainean *a posteriori* aplikatutako begirada arkeobotaniko gisa.

"Mota guztietako zeinu-prozesuek, ez bakarrik bizitza biologikoarekin zuzenean lotuta daudenean, absentzia baten ondorioz dute esanahia: ikonotasuna nabaritzen ez denaren emaitza da; indexikalitateak oraindik presente ez dagoenaren iragarpena dakar; eta erreferentzia sinbolikoak, ikonotasuna eta indexikalitatea ere inpliketzen dituen prozesu korapilatsu baten bidez, mundu absenteen irudia identifikatzen eta atzematen du ahoskatutako edozein hitzen esanahirako testuinguru absentea den sistema sinboliko batean txertatuta egoteko dituen moduei esker"⁶.

Konstanteak, arauak eta usteak kanpoan geratzeko moduak, berez, maniobra teknokultural espezifikokoak dira, espezialismo gizatiar, maskulino, zuri, heldu eta kapazaren azalera moderno bortitzen aurrean ageri (eta errepikatzen) direnak; banakako existentzia-planoen abstrakzioa, eta fluxu ugariaren (denbora, erazketa, ekoizpena, kapitala, zentzua) linealtasun aurre-erria. Crespo lautada horretan *porositate potentziala*⁷ manufakturatzen inplikatu da.

June Cresporen lanaren baitan bizitzea da hemen gure plana, Guggenheim Bilbao Museoaren 2024ko erakusketa bildutako azken ekintza (eta omisio) ildoak bereziki kontuan hartuta, baina baita haren obraren prozedura-konplexutasun osoa ere —agian ez da hain irakurgarria azken gauzatzeetan—, eta sistema dimentsional taktiko batekin lotzea, zeinak modernitate patriarkal-koloniala *deserrotzen* lagundu behar izan ahalko baitu, erakusketa hau gertatzen den unean areagotua, turbokapitalismo konputazional soluzionisten inplementazio nabarmenagatik eta erazte bertikaltasunaren erregimenak berezkoak dituen ingurumen-sakrifizio eta -bidegabekeria arranditsuengatik: beti goitik behera eta iparraldetik hegoaldera. Manuel Cirauquik liburuki honetan adierazten duen bezala, ordena bertikala eteten laguntzea da helburua⁸.

June Cresporen lanetik abiatuta, modernitatearen deserrotzearen hiru —edo gutxienez hiru— dimentsio antzeman ditut, aurrerago garatuko ditudanak. Etendura eta jarraipeneko hiru maniobra ontoepistemikoak dira, eta deserrotze hori adierazteko erabiltzen diren zenbait magnitude finkatzen dituzte: *becoming-undone-together*⁹.

Deserrotzeetako bat (1D) poroen egituraren inguruan dago antolatuta, eta *passing*¹⁰ delakoaren harreman-politikekin du zerikusia. Mukulu exentuen berezko osaera etetea; zeharkako presentziaren eta iragate gertaeraren birpolitizazioarekin jarraitzea.

Beste deserrotze bat (2D) munduaren azpiegitura-bilbean sartzen da. Bigarren deserrotze horrek bere egiten ditu zerbitzuaz honat dagoen bizimodu bat¹¹ —edozein esperientziaren aurreko eraginkortasun inposizioek gainezkatua— antolatzeko aukera eman behar izango duten hamaika jostura, ertz eta atzerapuntadak (*seamfulness*). Optimizazio teknikoaren berezko arintasunaren jarraitutasuna etetea, bereziki konputazionalki neurtutako harremanetan; testurarekin eta marruskadurarekin jarraitzea.

Hirugarren deserrotzeak (3D) lumarekin du zerikusia, geroaldiko baldintza errealaren premisa estetiko baten zati den aldetik: *queer* monumentaltasunaren absentsia eratzailarena. Bazterketa-, ustiaketa-, erazketa- eta sarraski-sistema baten berezko ordezkariak etetea; oparotasunarekin eta baieztapenarekin jarraitzea. Saiakera honetan Cresporen lanaren harira adierazitako sentsibilitateak honako egile hauen planteamendu metodologikoak dira funtsean: Elizabeth A. Povinelli (*Four Axioms of Existence*)¹², Trinh T. Minh-ha (*Speaking Nearby*)¹³, Possible Bodies (*Volumetric Regimes*)¹⁴, The Cell for Digital Discomfort¹⁵ eta Eduardo Kohn (absentsia eratzailak)¹⁶. Zenbait irudi ere badaude, hemen idatziz jasotzerik lotu ez arren esan behar izango zatekeenaren konposizio bisualak iradokitzen dituztenak.

1D. Poroa: *passing* delakoaren harreman-politikak

June Crespok manufacturatzeko dituen pieza asko pasaguneak dira, log(ist)ikoki igarogaitzak, erabilezinak. Matematika ez-eraginkor ederrekoak dira, eta ez-erabilgarritasuna dute erlazio-baldintza. Elkartzeko beste jardunbide batzuk proposatzen ditu Crespok, eta erabilera-arau estandarizatuak alboratzen: “Arazoa egon dadila”¹⁷. Horrela, igarotzea bera gertaera erlazional bat da, mugimendurik eza ekar dezakeena, zertarako eta hurbiltzearen eta ko-existentziaren logika aldatzeko. Ez pasatzea. Pasa daitezela horrela ez pasatzeko moduak. Hortik ez pasatzea, eta modu horretan ez zeharkatzea. Dagoeneko (*no-longer*) forma horretatik forma horietara ez pasatzea, beste gauza batzuk pasa daitezkeen. Zentzu- eta arreta-fluxuak birbanatzea, adibidez, birreskalatze-, segmentazio- eta zarakartze-eragiketen bidez.

Igaro ezin diren pasabideak, gurutzaketa gehiegi izateagatik edo existitzeko prozesuak berak eragindako buxadurengatik sortutako *nopassing* eremuak, perspektiba desoptimizatzeko eta hamaika ikuspuntu emateko konputazio-gaitasunaren mende jartzen dira, eta baztertu egiten dute *bat* (monokularra) edo *hemen* (geldi) kontzeptuak jakintzat ematea. Édouard Glissant-ek opakutasun¹⁸ eta alderraitasun-baldintzak mugiarazi zituen esperientzia inposatu, garden eta linealen fluxuen unibertsaltasunari aurre egiteko harreman-modu gisa. Maria Dadak esan bezala:

“Zentzu batean, sustraiaren aurka joateko nahia da, non sustraia Mendebaldeko ikuspuntuaren hastapen historikoa eta haren unibertsalizazioa diren. Mendebaldeko historia beti egon da nazionalitate-nozio zurrunei lotuta, eta ideia hori nazio kolonizatueta esportatu da, hala nola Libanora; ondorioz, nazio kolonizatu horiek ere antzeko errotze unibokoa dute xede. Alderraitasunaren ideia, Glissanten aburuz kolonizatuak berezkoa dutena, subjektibotasun ez-zurruna da, identitatearen eta mugimenduaren nozioen artean kokatua”¹⁹.

June Crespok zirkulazio pseudoperimetrala proposatzen du, jarraipen iraunkorra eskatzen duten serie ordenaturik gabea. Eta horren erdian, badirudi urrats mugatzailearen nolakotasunak liluratuta daukala. Eskailera batera ere igotzen da eta zulotik begiratzen du, argiak eta bihurtuak uzten dioten tokiraino²⁰. Eta gero men egiten du: “Azalaren kontrola gal dezadala”.

Glissantek proposatutako opakutasunaren eta alderraitasunaren maila taktiko berean, itsukeria da bitartekaritza konputazionaldun garaikidetasunaren erresistentzia- eta gaitzespen-taktika zirrargarrietako bat. “Esaldi batean, itsukeria zera da: informazio anbigua, nahasia edo engainagarria nahita gehitzea datuen zainketa eta bilketa oztopatzeko”²¹. Hainbat entitateri irakurketaren (edo zainketaren) plano-errealitaterako deia luzatuta zaratzeko, lainotzeko, kamuflatzeko edo eklipsatzeko ideia-sorta zabala eskaintzen du. Ezabatze batza da. Hodien joan-etorria, aldi berean, azpiegiturazko kateter irtenen bidez esekitzea, kapitalismo fosilaren botere-matrize trinkoaren aurrean borrokatze modu ausarta da²².

Ekitaldi ez-misto²³ baten atean gertatzen den bezala, ez pasatzeak, berez, eremu eta hutsuneen mundu oso baten porositate-bizipena areagotzen du, beste modu batera egoteko, hain emanak ez diren edo oraindik (*not-yet*) emanak ez diren harremanetatik ikasteko: oklusioaren pedagogia aktibatzen du. Buxadura edo mozketak abiapuntu duten esperimenduak. Pixka batean inguruan egotea, bueltan, ondoan: *nearby*²⁴. Eta zerbait pasatuko da. Denetarik pasatuko da: “Absentzia zentzu honetan: ‘oraindik-ez’ (*not-yet*) horrek orainari eragingo dion esperantzan orainaldira ekarritako etorkizunaren irudikapena. [...] etorkizun hori posible egiteko behar diren urrats guztiak gauzatzea ere absentzia eratzaila da”²⁵.

2D. Bilbea: *seamfulness*

“Josturen lengoaiak gogorarazten digu, askotan, azpiegiturek talka egiten dutela: haien josturak agerikoak dira beren punta, ertz eta bazterketa ugarietan. Hesiaren metaforak ez bezala, edo are geruza sentrazioak ez bezala, josturen eta *seamfulness* delakoaren lengoaiak iradokitzen du sistema bakoitza beste sistema batzuekin gainjartzen dela tokian-tokian, modu nahasian eta are artikulatu gabean egin ere. Mihiztadurarako nodo egonkorrak aurkeztu beharrean, josturek adierazten dute modu asko daudela sistema ugari, txatalak balira bezala, tokiko lerrokatze bakarrean elkartzeko”²⁶.

Cell for Digital Discomfort²⁷ delakoak zera hartu du xede: plataformakapitalismoari eta David Golumbiak²⁸ eta Syed Mustafa Ali-k²⁹ “konputazionalismoa” deitu zutenari erantzuteko premisa estetikopolitiko gisa zimurtasuna aldarrikatzeko moduak asmatzea eta probatzea. Konputazioaren bidez betearazten den zapalkuntza kolonial sistematikoan oinarritutako erregimena da konputazionalismoa, eta arin eta erraz gertatzen da, patrika bakoitzetik, eragiketa mundutar bakoitzean.

June Crespok ere arreta handiz erreparatzen dio eskultorikoki zein pragmatikoki prozesatutako materia zimurtsuaren haptikotasunari. Eta prozesuak tresna digitalak eskatzen dizkionean, jarrera sinesgogorra (*awless*) izaten du, *preview* eta *render* bidez bistaratutako distiratxoekiko eta akaberekiko eszeptikoa. *Discomfort* delakoaren aliatua da. Etortzeko dagoen *seamfulness*-taktikak konputazionalismo horren baliomultzoarekin (eraginkortasuna, efizientzia, optimizazioa, produktibitatea) eta guztia zerbitzu gisa hartzen duen eskaintzarekin bat ez datozen ezusteko parametroak proposatu behar izango zituzkeen *awlessness* bidez. Cresporen josturaz beteriko sorkuntzetan progresio semiotikomaterialik ez egoteak lodiera eransten dio *digital discomfort* deituaren muntaia izugarri, ekin eta sortzaileari. Ingurunea, tenperatura, eskala, perspektiba (batzuetan sotil, besteetan bortitz) aldatuz, erregimenaren euskarriak erori egiten dira; agian *a posteriori* agertzen dira, ordena informatikorik ezak itxuraz adierazten duen azpiegitura-hutsunearen infernuaren aurreko babes gisa.

“Infernura joan-etorria egina naiz. Eta esan beharra daukat zoragarria izan dela”³⁰: ustekabeko artikulazioak dituzten lore ornodunak, POVaren baitan niaren batasuna iraultzen duten errenderizazioak, onespeneraren araberako interfazeak, objektiboak ez diren eskanerrak, elkarrekikoak diren *hosting* eta sostengu trans*feministak: mundu-bilbe teknoanitz³¹, munduak bestelako bitarteko geldo, kiribildu, zail, latz, preziatu batzuen bidez manufacturatzeko.

3D. Luma (*birds of no feather*): *queer* monumentaltasunaren absentsia eratzaillea

“Mundu berriak irekitzeak dakarren plazeraz, samurtasunaz eta zirrarez gainezka daude *queer* eta elbarriei buruzko liburuak. Eskaner *hackeatuek*, gaizki erabilitako ereduak eta gorputz zakarrek, denek ere, bolumetria alternatibo gisa biratzen diren desbideratze-izpiak sortzen dituzte”³². Argitaratu beharreko mito teknokultural bat dago, eta June Cresporen egunkariek berpiztu egin dute. “Lumaren ezintasuna” du izenburu, eta *cistema*-ren *backstage*-an egindako sartu-irten baten istorioa kontatzen du. MakeHuman izena duen humanoideak modu bolumetrikokoan modelatzeko *middleware* baten makinagelan hasi zen. Bere interfaze grafikoak ezarritako parametroen bidez, tresnak humanoidearen ezaugarriei buruzko zenbait metadatu biltzen ditu, “generoa” barne, besteak beste. Eredua 3D animaziorako tresna batera inportatu daiteke, eta harekin batera doaz bere metadatuak ere. Mitoaren arabera, “femenino” gisa erregistratutako (metadatatutako) gorputz-eredu bati *motion capture* prozesu

bidez “maskulino” gisa *atzemandako* mugimendu bat esleitzen saiatzean, egitura erori egin omen zen zuzen-zuzenean, begien bistan galdu omen zuen ardatz oro pantailan bertan; erorketa hori grabitate birtual baten legatuaren mende zegoen, itxuraz helburu bakarrarekin jarauntsia: amiltzea; kolapsoa disidentziaren ondorioz animatzea: lumaren ezintasunaren erregistro teknikoa. Ezintasun hori, kontuan hartzen ez diren lumen absentsia eratzaille hori, elkarrekikotasun-egoeran paramonumentaltasun zeihar eta atzemanezina posible den mundu bat loratzeko gertatu behar izango zatekeen amiltze konputazionala da.

Elizabeth A. Povinellik galdetua da “zergatik dirudi pertsonen balioa, haien giza eskubideen eta eskubide zibilen onarpena, zuhaitz genealogiko baten adar ahul xamarren mende dagoela beti? Zergatik egon behar dugu adar horien mende?”³³, eta galdera horretan odol- edo izerdi- loturen absentsia eratzaille hautematen da; lotura horiek dira, hain zuzen ere, konbentzioz indibidualak diren espezimenen existentzia-moduak espezie, genero, familia, ordena, klase, filum, erreinu eta domeinu kategoria-adarren baitan mantentzen dituztenak. Gertatu behar izango zatekeena zurtain horien errekuntza izango da, taxonomia monumental horren eraistea.

Premiazkoa da, beraz, gimnastika bat asmatzea modernotasun patriarkal-kolonialaren hutsuneetatik hautematen den denbora ez-linealaren bitartez erorketari eusteko. Agian, erorketari eustea flotatzea³⁴ izango da, edo intimoak baina asertiboak diren gainazal harrigarri eta anbiguoetan zirkulatzea, eta, horrela, gertatu behar izango zatekeen paramonumentaltasuna egiturena baino maiztasun txikiagoko politika materiala izatea. Agian, ez-bitar, *otherkin*, marroi, transmarikabollo, *niñe* eta elbarrien konspirazioetarako sekuentzia gimnastikoak egikaritu behar izango zatezkeen. Etengabeko erremediarako prest dauden materializazioak, monumentaltasunaren absentsia oparoaren (hura lantzearen) bila. Monumentalitate hori *queer* angeluek³⁵, jarrera arraroek³⁶, deserosoek³⁷ osatzen dute, inoiz bikoiti ez bakoiti ez direnek³⁸. Beharbada hasia izan beharko da keinuak probatzeko ariketa ezagunak eta ezezagunak biltzen dituen zerrenda bat; Elsa von Freytag- Loringhoven³⁹ baroisa dandyaren moduko keinuak, angeluak beren onetik aterata dituztenak, eragiketa teknikoek, burokratikoek, goranzko desklasamenduek eta alboetanzko genero-parametroek eutsita. Edo Lucía C. Pinorenak, *queer* izaera hartzen doazen gorpuztasun-oskolez osaturikoak⁴⁰; Sina Seifree-renak, *rigging* piratak probatuz sortutakoak⁴¹; Abelardo Gil-Fournierrenak, soilik gizakienak ez diren ikusmen/ denbora gurutzaketak adierazten dituztenak⁴²; edo Pascale Barretenak, bolumen-larrialdien eta haien egituraren arteko agentzia-simetria zaintzen dutenak⁴³.

Cresporen formek ere ezinezko lumak dituzte. Absentziaren erakuskeria egiten dute, barru-kanporantz handiesten dute beren ezintasun kartsua. Kumulu hutsak diren heinean, gainera, *passing* egiten dute, adibidez generoari, espezieari eta erreinuari (*kingdom dysphoria*) dagokienean (Quimera Rosa⁴⁴; *So-called Plants*⁴⁵), baina, era berean, ez dute inolaz ere *passing* egiten. Eta sentikorra dena desorientatzen duten espezimenak dira (Ahmed⁴⁶), “elkar egiten” dutenak (Crespo⁴⁷). Normalaren sakrifizio-eremuak seinatzen dituzte (Dragona & Rocha⁴⁸): arraza-teknokapitalismoaren modernitate zis-hetero patriarkalkolonialaren forma guztiak, dagoeneko (*no-longer*) ez dabilenaren eta oraindik (*not-yet*) erabat ez dabilenaren artean dilindan. Brontzeak eta hormigoiak ez zuketean munduaren zentzu bakarra ezarri behar izango. Handitasunak eta irmotasunak ez zuketean orientaziorik edo norabiderik inposatu behar izango. June Cresporen geroaldiko baldintza errealean monumentaltasun autoritario eta errepresiboarekiko zorra kitatuta dago, eta harrizko unibertsaltasuna berriz bilakatu da arrunt. Hori da,

beharbada, gertatzen jarraitu behar izango zatekeena paramonumentaltasun *queer* bat zeiharki loratzeko. Ez zedila ezarri, ez zutitu, ez finkatu, ezta hemen/horrela geratu.

[Itzulpena: Bakun;
Egokitzapena: Guggenheim Bilbao Museoa]

Oharra

1. Natasha Myers, "Cómo cultivar mundos habitables: Diez pasos (no tan fáciles) para la vida en el Plantropoceno", hemen: *Climaterra.org*, 2021.
2. Romi Ron Morrison, "Voluptuous Disintegration: A Future History of Black Computational Thought", hemen: *Digital Humanities Quarterly*, 16. lib., 3. zk., 2022ko uda.
3. Eduardo Kohn, *Cómo piensan los bosques. Hacia una antropología más allá de lo humano*, Abya Yala, Quito, 2021.
4. Tina Campt, *Listening to Images: An Exercise in Counterintuition*, Duke University Press, 2017.
5. Morrison, *op. cit.*
6. Kohn, *op. cit.*
7. The Institute for Technology in the Public Interest & Peter Westenberg, *Potential Removal*, Critical Medialab & Atelier Mondial, Basilea, 2023. Hemen eskuragarri: https://titipi.org/pub/potentialremoval/potentialremoval_imposition.pdf.
8. Ikus Manuel Cirauqui, "June Crespo, hedapen baskularra", liburuki honetan.
9. Oracle(s), *Becoming undone together (1) [online]*, 2020. Hemen eskuragarri: <https://vimeo.com/441452535>
10. *Passing* hitza ingelesez erabili ohi den termino bat da, eta dela talde nagusiarekiko asimilazio bidez, dela autodefentsa bidez pribilegiozko testuinguru batean sartzea errazten duten gizarte-ulergarritasun mekanismoak izendatzen ditu. Adibidez, oso baliotsua da mekanismo horien inguruan Elaine Ginsberg-ek egindako azterketa historiografikoa (*Passing and the Fictions of Identity*, Duke University Press, 1996).
11. Jara Rocha, *LaaS (Life as a Service)*, Hangar/ La Virreina, Bartzelona, 2023. Hemen eskuragarri: <https://hangar.org/es/fellowship/laas-life-as-a-service-de-jara-rocha-primerfellowship-hangar/>
12. Elizabeth A. Povinelli, *Between Gaia and Ground. Four Axioms of Existence and the Ancestral Catastrophe of Late Liberalism*, Duke University Press, 2021.
13. Nancy N. Chen, "Speaking Nearby. A Conversation with Trinh T. Minh-ha", hemen: *Visual Anthropology Review*, 8. lib., 1 zk., 1992ko udaberria.
14. Possible Bodies (Jara Rocha eta Femke Snelting), hemen: *Volumetric Regimes: Material Cultures of Quantified Presence*, Rocha eta Snelting (ed.), Open Humanities Press, Londres, 2022. Hemen eskuragarri: <https://volumetricregimes.xyz>
15. Cristina Cochior, Karl Moubarak eta Jara Rocha (ed.), "Digital Discomfort", hemen: *BAK basis voor actuele kunst*, Utrecht, 2022. Hemen eskuragarri: <https://www.bakonline.org/nl/prospections/on-digital-discomfort-editorial/>
16. Kohn, *op. cit.*
17. Marc Navarro, "June Crespo. Forma cerrada pero rota", hemen: *El estado mental*, 2016ko azaroa. Hemen eskuragarri: <https://elestado mental.com/diario/june-crespo-formacerrada-pero-rot>
18. Édouard Glissant, *Poétique de la Relation*, Gallimard, Paris, 1990.
19. Maria Dada, "Rehearsal as the 'Other' to Hypercomputation", hemen: *Volumetric Regimes, op. cit.* Hemen eskuragarri: https://volumetricregimes.xyz/index.php?title=Rehearsal_as_the_%E2%80%98Other%2%80%99_to_Hypercomputation
20. Ikus June Crespo, *Prozesu-egunkaria 1*, liburuki honetan. BI TESTUETAKO ERREFERENTZIA BATERATU
21. Finn Brunton eta Helen Nissenbaum, *Obfuscation: A User's Guide for Privacy and Protest*, The MIT Press, 2015.
22. Andreas Malm, *How to Blow Up a Pipeline: Learning to Fight in a World on Fire*, Verso, 2021.
23. (Ed. oh.) Esparru ez-mistoak zera dira, talde zapaldu bat zapalkuntza hori eragiten dion taldeko kiderik gabe elkartzeko guneak.
24. Chen, *op. cit.*
25. Kohn, *op. cit.*

26. Janet Vertesi, "Seamful Spaces: Heterogeneous Infrastructures in Interaction", hemen: *Science, Technology & Human Values, Special Issue: The Conceptual and the Empirical - expanding STS*, 39. lib., 2. zk., 2014ko martxoa.
27. Cochior, Moubarak eta Rocha, *op. cit.*
28. David Golumbia, *The Cultural Logic of Computation*, Harvard University Press, 2009.
29. Syed Mustafa Ali, "A Brief Introduction to Decolonial Computing", hemen: *XRDS: Crossroads, The ACM Magazine for Students*, 22 (4), 2016.
30. Louise Bourgeois, 1996.
31. Yuk Hui, "Rethinking Technodiversity", hemen: *The UNESCO Courier [online]*, 2023. Hemen eskuragarri: <https://courier.unesco.org/en/articles/rethinking-technodiversity>
32. Helen Pritchard, "Clumsy Volumetrics", hemen: *Volumetric Regimes, op. cit.* Hemen eskuragarri: https://volumetricregimes.xyz/index.php?title=Clumsy_Volumetrics
33. Elizabeth A. Povinelli, "Notes on Gridlock: Genealogy, Intimacy, Sexuality", hemen: *Public Culture*, Duke University Press, 14. lib., 1. zk., 2002ko negua.
34. Jara Rocha eta Femke Snelling, "The Possible Bodies Inventory: dis-orientation and its aftermath", hemen: *InMaterial*, 2. lib., 3. zk. (*Miradas sin límites: Cuerpos poliédricos y diseño*), 2017. Hemen eskuragarri: <https://www.inmaterialdesign.com/index.php/INM/article/view/29>
35. Jane Prophet eta Helen Pritchard (ed.), *Plants by Numbers: Art, Computation, and Queer Feminist Technoscience*, Bloomsbury Publishing, 2023.
36. Femke Snelling, *Awkward gestures: designing with Free Software*, Freeze, 2008. Hemen eskuragarri: https://freeze.sh/_/2008/awkward/
37. Cochior, Moubarak eta Rocha, *op. cit.*
38. MELT, *Never Odd or Even*, Sonic Acts, 2021. Hemen eskuragarri: <https://overexposed.sonicacts.com/neveroddoeven/>
39. Gloria G. Durán, *Baronesa dandy, reina dadá*, Díaz & Pons, 2013.
40. Lucía C. Pino, *Makebelieve Neuromancer*, La Capella, Bartzelona, 2021.
41. Sina Seiffee, "Rigging Demons", hemen: *Volumetric Regimes, op. cit.* Hemen eskuragarri: https://volumetricregimes.xyz/index.php?title=Rigging_Demons
42. Abelardo Gil-Fournier, "La vibración de los juncos: imagen, tiempo y terraformación", hemen: *Accesos [online]*, 2019. Hemen eskuragarri: <https://www.accesos.info/abelardogil-fournier>
43. Pascale Barret, *This Obscure Side of Sweetness is Waiting to Blossom*, Constant, Brusela, 2017. Hemen eskuragarri: <https://www.pascalebarret.com/projects/this-obscureside-of-sweetness-is-waiting-to-blossom-2/>
44. Quimera Rosa, *The Secrets of Natureculture (or How to Escape Kingdom Dysphoria)*, Fundació Miró, Bartzelona, 2023.
45. Jane Prophet eta Helen Pritchard (ed.), *op. cit.*
46. Sara Ahmed, *Queer Phenomenology. Orientations, Objects, Others*, Duke University Press, 2006.
47. June Crespo, "Una escultura haciéndose", hemen: *Pero... ¿ESTO ES ARTE?*, CA2M, 2018. Bideoa hemen eskuragarri: <https://www.youtube.com/watch?v=uLlrvdz5uPY>
48. Daphne Dragona eta Jara Rocha, *Espaciotiempos (in)deseados, La Irrupción* erakusketaren ibilbide narratiboa, Santa Mònica, Bartzelona, 2022. Hemen eskuragarri: <https://artssantamonica.gencat.cat/es/detall/Espaciotiempos-desestimats>